

change



EGIN JOKOA!


CHANGE ikerketaren topaketari buruzko itzultze-txostena. Topaketa KARRASKA-Nen Berrikuntza eta Kulturaren X. Jardunaldian egin zen, 2024ko irailaren 17an, asteartez, Getxoko RKEtxean (Bizkaia)



Bultzatzaileak



K_RR_SK_N



VIKITOKI

Kolaboratzaileak



#CHANGE_MdC
change.karraskan.org



#CHANGE_MdC
CHANGE: EGIN JOKOA!

Topaketa hori **CHANGE** Aldaketen trukea ikerketa kolektiboaren parte gisa antolatu zen. Topaketa **KARRASKANen Berrikuntza eta Kulturaren X. Jardunaldian** egin zen, **2024ko irailaren 17an**, asteartez, **Getxoko RKEtxean (Bizkaia)**. Elkarrekin sustatu zuten **Colaboratorio IC, KARRASKAN, REACC eta Wikitoki** erakundeek, honako hauekin elkarlanean: **Getxoko Udala, Bizkaiko Foru Aldundia, Daniel y Nina Carasso Fundazioa eta Eusko Jaurlaritza**.

Topaketaz eta ikerketa osoaz arduratu den lantaldea **Elena Brea, Marisa Lafuente, Ricardo Antón eta Rosa Abalek** osatu dute. Kontzeptua eta metodologia **ColaBoraBorak** diseinatu du. Ekoizpenaz eta idazkaritza teknikoaz **KARRASKAN** arduratu da, komunikazioaz **No te pierdas en las redes** agentzia eta ikusizko diseinuaz **Zura** enpresa.

Txosten hau **ColaBoraBorak** egin du, Zura enpresaren ikusizko diseinuarekin. Txostenak honako hauek jasotzen ditu: topaketan gertatutakoa, parte-hartzaileen ekarpenak, **“Negozio-bazkaria / Elkarrekin sukaldean”** saioko kontalariak prestatutako dokumentazioa eta **“Bingoan”** elkarrizketara gonbidatutakoen lau testu. Txostena osatzen duten argazkiak eta bideoa **Ainara Ipiña estudioak** egin ditu.

Informazio gehiago: <https://change.karraskan.org>

Eduki guztia **Creative Commons** lizentziapean dago, aitortzera eta berdin partekatuzera mugatuta.



Aurkibidea

1. CHANGE Aldaketen trukea ikerketari buruz	05
2. CHANGE Egin jokoa! topaketari buru	06
3. Norentzat zen	09
4. Finantzaketa jokoan jartzea (goizez)	11
4.1 Hasteko	11
4.2 Hiru une osagarri	12
- BUR TSA	14
- BINGOA	17
- LONJA	23
5. Negozio-bazkaria (arratsaldean)	27
5.1 SARRERA-DOKUMENTUA	28
5.2 ELIKAGAI AK PRESTATZEKO MAHA IEN KONTAKIZUNA	30
1. MAHAIA: UMAMI-PISTOA ARRAUTZA FRIJITUAREKIN!	30
2. MAHAIA: ASKOTARIKO ENTSALADA	32
3. MAHAIA: BARAZKI-SAL TSA	35
4. MAHAIA: ENPANADA	37
5. MAHAIA: BULEGO TEKNIKO PARTEKATUA (BTP)	40
6. AfterCHANGE	43
7. ERANSKINA: Irekitzen duten testuekin ixtea	44
Sugar txiki bat, sua, zero izartsua – Greta Frankentfeld	46
Nahi dugun ekonomia pentsatzea, esatea eta egitea. Ezin dugu ez ikusiarena egin. – Javier Moreno Ibarra	48
Finantza-arduradun bati gutun irekia... – Kike Labiá	52
Kultura-sektorearen eta gizarte-berrikuntzaren arteko harremanak eta finantzaketa-sistema hobetzeko aukera berriak – Itziar Rubio Barrera	54
8. Multimedia edukia	59

change

PLAYLIST

Jardunaldirako erreproduzio-zerrenda eklektiko bat sortu genuen Spotify-n, diruari buruzko abestiek. Ora-in, txosten hau irakurtzeko soinu-banda gisa erabil dezakezu. Zerrendan honako hauek daude:

- Dinero de Obús
- Money makes the world go round (Liza Minnelli)
- La bien pagá (Miguel de Molina)
- Ta zer ez da berdin (Hertzainak)
- Money for Nothing (Dire Straits)
- Millonaria (Rosalía)
- Txanpon baten truke (Alaitz eta Mainer)
- Taxman (The Beatles)
- Quiero ser millonario (Ilegales)
- Dinero (Jennifer Lopez)
- Dinero (Bad Gyal)
- El dinero (El Fary)
- Ameriketara joan nintzen (Urko)
- Dinero (Los Punsetes)
- Money Honey (Lady Gaga)...

Eskaneatu kodea
Spotifyn entzuteko.



<https://open.spotify.com/playlist/485xSZ4PeAkI3Ds65nnEuA?si=ZJxn95vIS1SNEWrImPRMVw>



01

CHANGE Aldaketen trukea ikerketari buruz

Gaur egungo trantsizio eta erronkei aurre egiteko, zeharkako estrategiak eta antolatze eta lan egiteko modu berriak behar ditugu. Ideiak, pertsonak, azpiegitura komunak, proiektu zehatzak eta mota guztietako baliabide eta kapitalak mugiarazi behar ditugu. Eta hori nola egin pentsatzeko, CHANGE Aldaketen trukea jarri dugu martxan, eragile anitzeko harremanei eta finantzaketa estrategiei buruzko ikerketa kolektibo bat, erronka eraldatzaileen eta aldaketa prozesuen bideragarritasuna ziurtatzeko.

CHANGEren helburuak hauek dira:

1. **ELKARRIZKETAK eta TOPAKETAK** egitea sustatzea finantzaketa eskaintzen eta eskatzen dutenen artean eta bitarteko eragileekin.

2. Sortzen diren **HARREMANAK** aztertzea, eta konfiantza, aitortza eta elkarrekikotasun handiagoa bilatzea, eta baita menpekotasun edo bezero-izaera gutxiagoko harremanak ere, helburu bateratuak lortzeko.
3. **BALDINTZAK eta PROZEDURAK** elkarrekin zehaztea, ohitura, inertzia edo errutinetatik harago joan ahal izateko.
4. **ERAGILE ETA PROGRAMAK** identifikatzea, jardunbide on eta inspirazio modura.
5. Hori guztia **ELKARLANEAN ETA ELKARREKIN** lantzea, konplizitateak sortzeko eta agertoki berrietarako aurrerapausoak elkarrekin emateko.

CHANGE izenburuak berak aldaketaren ideia anibalentearekin jolas egiten du, txanponaren bi aldeekin: eraldatzailea eta ekonomikoa.

CHANGEri buruzko informazio gehiago:

> Ikerketaren web-orria: <https://change.karraskan.org/>

> Esparru-dokumentua: https://colaboratorioic.org/wp-content/uploads/2024/07/Documento_CHANGE_MonedaDeCambio.pdf

> Lehen enClave Parlante saioaren bideoa, prozesuaren aurkezpen publiko gisa erabili zena: <https://www.youtube.com/live/YJaMXLs-hCj4>

02

Sobre CHANGE Con el dinero sí se juega

Eragile anitzeko harremanei eta finantzaketa-estragiei buruz hitz egiteko topaketa. Galderak, zalantzak, esperientziak eta proposamenak jokoan jartzeko eguna. Burtsan posizioak hartzeko, bingoan jokatzeko eta arrain-enkante batean parte hartzeko goiza. Eta arratsaldean, negozio-bazkari moduko bat. Hori guztia, CHANGE elkarlanean aktibatzen jarraitzeko.

Urtero bezala, berrikuntza-jardunaldian geure buruari galderak egiteko gai bat lantzen saiatzen da KARRASKAN (beste edizio batzuetan gai hauek izan ditugu hizpide, besteak beste: atsedendia, iraunkortasuna, kultura-ekosistemak, sareak egituratzea, hurbileko etorkizunak, ikus-entzuleak, esperientzien transferentzia, etab.). Eta aurten, hamargarren edizioa ospatzeko, CHANGE bultzatu duen talde gisa, finantzaketaren inguruko harremanei buruz hitz egiteko topaleku izan da.

Jardunaldiari **Egin joko!** izenburua jarri genion, eta asmoa zen parte hartzea, esperientziak trukatzeko eta elkarrekin eraikitzea. Topaketak goiza eta arratsaldean hartu zituen eta, proposamenak egiteaz gain, ludikoa ere izan zen. Hona hemen egitaraua:

1. Irekiera eta izen-ematea 9:30etik 10:00etara.
2. Finantzaketa jokoan jartzea, 10:00etatik 14:00etara (60 plaza, izen-ematea doan).
3. Negozio-bazkaria, 14:00etatik 17:00etara (30 plaza, izen-ematea 5 €).
4. postCHANGE 17:00etatik 18:00etara (arratsaldeko atsedengiro pixka bat, etxera itzuli aurretik).

Txosten honetan jasota daude eguneko jardueren laburpena, goizeko parte-hartzaileen ekarpenak, arratsaldeko errezetak eta **Bingora** gonbidatutakoek gerora bidalitako testuen eranskina. CHANGEren inguruan hausnartzen jarraitu ahal izateko bezain gozo eta zapoetsua izatea espero dugu.

Deialdiari buruzko informazio gehiago:

> Deialdia gaztelaniaz: <https://www.karraskan.org/eventos/x-jornada-de-innovacion-y-cultura-change-con-el-dinero-si-se-juega-2/>

> Deialdia euskaraz: <https://www.karraskan.org/eu/gertaerak/berrikuntza-eta-kulturaren-x-jardunaldia-change-egin-jokoa-2/>




change




03

Norentzat zen

Parte-hartzaileak:



Jatorri geografikoa:



CHANGEk balizko eragileen espektrorik ahalik eta anitzena interplatatu nahi du; finantzaketa eskaini zein eskatzen dutenak inplikatu nahi ditu ikerketan, baita prozesuan esku hartzen duten bitarteko eragileak ere. Eta fokua, batez ere, **kultura komunitarioa, herritartasun berrikuntza, ekonomia sozial eta solidarioa** eta beste eremu mugakide batzuk bezalako esparruen intersekzioan jartzen dugu, diziplinartekotasun eta interseksionalitate gakoetan (**GJHak eta 2030 Agenda** erreferentzia gisa hartuz).

Jardunaldirako gonbidapena hau zen:

Esparru horietakoren batean edo bitarteko espazio horretan bizi bazara. Baliabideen, diruaren, kapitalaren eta harremanen kontuak interesatzen bazazkizu. Interes berbera duten beste batzuk ezagutu eta haiekin hitz egin nahi baduzu. Eta formatuekin jolastuz egin nahi baduzu, osagai parte-hartzaileak eta ludikoak txertatuz. Orduan...

EMAN IZENA!

Guztira, **48 pertsona bertaratu ziren**. Talde anitz, **engaiatu eta gogotsua zen**, eta gogoz parte hartu zuen egun osoan zehar. Batez ere, arteen, kulturaren eta gizarte-berrikuntzaren esparruko profilak, **31 emakume eta 17 gizon**, gehienak **Euskadikoak** (% 85), baina baita **estatu osokoak** ere (% 15). Nagusiki, **finantzaketa eskatzen duten eragileak eta bitarteko eragile batzuk**.

Oraingoan ez genuen lortu, taldea orekatzeko, **finantzatzaileak erakartzea**, ezta eremu pribatuko eragileak (**batzuk egon ziren**) eta administrazio publikokoak ere. **Zorretan gaude**.





04

Finantzaketa jokoan jartzea (goizez)

04.1

Hasteko

Ana Urgoiti KARRASKANeko presidenteak eta Juanma González Getxoko Udaleko Sustapen Ekonomikoko zinegotziak eman zioten hasiera jardunaldiari.

Anak KARRASKAN elkartearen ibilbide luzeari buruz hitz egin zuen. Elkarrekin **politika publikoetan eta ekosistema eta sektore kulturalaren baldintzetan** eragiten saiatzen da, proposamenak eginez, sortzen ari diren esparruetako **berrikuntzaren** eta antzemandako **aukera** eta **premia zehatzen** inguruko programa eta ekintzen bitartez. Hori kulturaren berrikuntzari eta berrikuntzaren kulturari buruzko urteko **jardunaldian** islatzen da. **Hamar edizio** bete ditu jardunaldiak, eta aurtengo honetan ardatz da: **finantzaketa-baldintzak** eta **-harremanak**, adiera zabal eta zeharkakoan.

Juanmak KARRASKAN elkartearekin duen harreman luzea ospatu zuen, batez ere **jardunaldiarekin** elkarlanean egin duen ibilbidea, azken **zortzi edizioetan** lagundu baitute. Kulturaren eta sorkuntzaren sektorearekin **Udalak** duen **konpromiso estrategikoaren** parte da hori. Izan ere, ereduazko azpiegitura eta zerbitzuak ditu, **Getxo Sormen Hub**, adibidez, non **ekosistema, lankidetzak, elkar-lankidetzak eta profesionalizazioaren** moduko ideiak lantzen baitituzten.

Gero, **ColaBoraBorako Ricardo Antón**ek, zeinak, **zeremonialari izateaz gain**, zenbait **jardueren dinamizatzaile** lanak egin baitzituen, **labur-labur azaldu zituen** topaketaren helburua, eguneko programa eta programaren atalak, eta elkarrekin egoteko eta lan egiteko jarraibide sinple batzuk:

- **Amain ematea / Jolasari jarraitzea / Momentua gozatzea.**
- **Arretaz entzutea**
- **Eskuzabaltasunez partekatzea**
- **Bidegurutzeak bilatzea gutxiago ezagutzen duzun eta jakin-mina pizten dizun jendearekin**
- **+ Gustatzen bazaizu, idaztea.**

Gure maskota ere aurkeztu genuen, **Martintxo txerritxoa, buztinezko itsulapiko bat...** urrezko arrautza bat jarri berri zuena! **CHANGE**n **finantzaketa-estrategiei** buruz pentsatzeko bilatzen ari garen **modu disruptibo** horri begi-keinua egin genion, **ohiko estrategiek** gurekin ez dutelako funtzionatzen.

Eta **Martintxok** ere zeregin garrantzitsua izan zuen **izotzaldia** urtzeko ariketan. Izan ere, **ITXAROPENA_BOIKOTA** jolasean aritu ginen, konturatzeke zergatik eta nola egon eta parte hartu nahi genuen. Jendeari **kartulina txiki** batean idazteko eskatu genion:

- **alde batean, jardunaldira zein itxaropenekin joan zen;**
- **beste aldean, itxaropen hori ez betetzeko zer boikot edo auto-sabotaje egingo zuen.**

Kartulinak **itsulapikoan** sartu genituen, eta han jarraitzen dute, ontzen, norbaitek mailuarekin hausten duen arte.

change

04.2

Hiru une osagarri



Gero, saioa amaitu bitartean, geure buruari galderak egiteko tarte hartu genuen, **ondo**z **ondoko hiru unetan oinarrituta**, transakzio ekonomikoko guneetan sortzen diren harremanekin modu sinbolikoan jolastuz, adibidez:

BURTSA. Elkar ezagutzeko eta gorputza jartzeko, mugitzeko eta gaiari dagokionez kokatzeko **soziodrama bat, balore-burtsa eta burtsa-indizeak** agertoki gisa erabiltzen dituen.

BINGOA. Ausaz aukeratutako galderetan oinarritutako **mahai-ingurua**, hainbat **esperientzia, kasu eta profil adierazgarri** ordezkatzeko zituzten lau lagunekin.

LONJA. Eztabaidarako tarte irekia, iritziak salerosteko eta enkantean jartzeko. Parte-hartzaileek entzun eta hitz egiteko aukera izan zuten, arrainontzian une bakoitzean zuten tokiaren arabera.

Hurrengo orrialdeetan zer gertatu zen eta zer ideia nagusi landu genituen laburbildu ditugu.





BURTSA

Burtsako indizeen igoera edo jaitsiera irudikatzen dituztenen moduko bi **lerro hautsik** ardatz eta koadrante modukoak irudikatzen zituzten aretoko zoruan. Hori eta **galdera-sorta** bat nahikoa dira soziodrama mar-txan jartzeko.

Hurrengo **70 minutuetan**, aretoan zehar **mugitu** ginen, **tokia hartu** genuen, **taldeak** egin genituen, eta **iritziak ematen** eta alderatzen aritu ginen. Hasteko, aretoa zeharkatu eta bertan zeuden elementuei **erreparatu** genien, **elkar ezagutu** genuen, lehen **konplizitateak** sortu genituen.

Lehenengo galderak errazagoak dira:

- **Zenbat diru daramazu?**
- **Egunean zenbat denbora behar duzu finantzaketan pentsatzeko?**
- **Zer distantzia egin duzu jardunaldira iristeko?**
- **Zer eragile-mota zara? Finantzaketa eskaintzen duzu ala finantzaketa bila zabilta?**
- **Zer ordezkari-motatik dago gehiegi eta zer ordezkari-mota falta dira?**

Entzun genituen zenbait ideia:

- Dirua eskaintzen eta bilatzen dutenen arteko zubi izatea. Erakarle eta lotura-sortzaile izatea.
- Dirua nola erabiltzen dugun eta diruarekin zer harreman dugun hobeto ulertzea.
- Dirua ohiko modutan bilatzen dugu eta, funtzionatzen ez dutela jakin arren, haiei lotuta jarraitzen dugu.
- Nola helduko gara gaur aretoan ez daudenengana? Benetan hitz egin nahi al dugu haiekin? Nola egin hori, aurreiritzietatik eta helburu instrumental hutsetik harago?

Beste hiru galdera hauei gehiago erreparatu genien:

1. **Zure ustez, zer eustea da garrantzitsuagoa?** Egiturak eta ekipoak, proiektu zehatzak eta eragina dutenak, epe ertain-luzera eraldatzaileak izan daitezkeen prozesurik ziurgabeenak edo sarea egituratzea eta erronka komunei aurre egiteko lankidetzak?
2. **Zerk ahalbidetu lezake eragileen arteko harremanak orekatuagoak izatea?** Zer egiten ari gara oreka horiek bilatzeko? Premiazkoagoa, estrategikoagoa, errazagoa... iruditzen zaigun zer-bait?
3. **Finantzaketa-harreman eta -prozesuen inguruko zailtasunei dagokionez, zein dira garrantzitsuenak?** Burokrazia eta justifikazio nahasgarria (kontuak ematea, mesfidantza, kontrola), finantzaketa jaso duten eragileen eta finantzatzaileen arteko lehia, epe laburrari begiratzea eta proiektu-zaletasuna edo beste finantzaketa-eredu batzuen hurbileko eredu esanguratsurik eza? Zer egin dezakegu zailtasun horiek gainditzeko?

Honako hauen inguruko ideiak sortu ziren:

Baldintza material eta emozionalei erantzun behar diegu (gure ahalmenen gainetik bizi gara eta lan egiten dugu), **egonkortasuna eta jarraitutasuna behar ditugu**, ez dugu egun guztia proiektuak aurrera ateratzeko benetan egin behar den lanari eusteko eta justifikatzeko trikimailuekin atzera eta aurrera ibili behar.


Arrakastaren eta balio-itzularen, eraginen eta eragin horien neurketaren gaia problematizatu behar da, epe ertain-luzeko aldaketa-jardunbide mota horien errealitatera egokitu daitezten. **Jardunbide horiek** zeharkako ondorioak dituzte maiz, eta gehiago hautematen dira alderdi kualitatibotik eta bizitza-historietatik zuzenean alderdi kuantitatibotik baino.


Baliabideak behar ditugu ereiteko, oinarriak jartzeko, ekimen esploratzaileago eta ziurgabeagoak lantzeko. Hori ahalbidetzeko baldintzak errazago lor daitezke taldean, sarean, baina benetako sarea izateak **ere ardura eta baliabide handiak eskatzen ditu**.

Konfiantzak dena zeharkatzen du. Funtsezkoa da harreman gizatiarra-goak izateko, arau eta protokoloetatik harago. **Konfiantza landu egiten da** (sareko konfiantza are gehiago), eta atzeraelikatzen den zirkuitutik ateratzen laguntzen digu: ezagutzen ez dugun eta gu ez bezalakoa den jendearekin lan egiteko beldurraren eta harreman berrietara irekitzeko gai ez izateagatik endogamian erortzeko arriskuaren artean.

Mesfidantza kateatutako produktuetan burokrasia handiagoa da. *Zer gertatuko litzateke fiskalizatzeko erabiltzen dugun diru eta ahaletin guztia konfiantza-, aitortza- eta elkarrekotasun-harremanak ahalbidetzera bideratuko bagenu?* Horrek gai filosofikoagoekin du zerikusia, baina baita gai zehatz batzuekin ere, adibidez: **formularioen formatua bateratzea eta topaketa txikiak eta presakuntzak antolatzea**, askotariko eragileen hizkuntzak hurbiltzeko eta jardunbide egokiak eta aukerak eza-gutarazteko.

Lokaztea... Gehiago?! Gerrilla-estrategiak diseinatu eta probatzea, **estrategia disruptiboagoak**, ohiko ibilbide eta harremanetatik harago joateko, aukera berriak sortzeko. **Kolektibo gisa pentsatu** behar dugu (hainbat eragileren artean), **proposamenak egin behar ditugu**, norberak egin dezakeen horretatik abiatuta (beste batzuen menpe dauden aukera handietatik urrun).





BINGOA

Atsedean hartu ondoren, aretora itzuli ginen. Aretoa bestela antolatuta zegoen, bingoa jolasteko. Horretarako, Saioa Olmo artistaren **BINGO-EZTABAIDA** metodologia egokitu genuen. Metodologia horren helburua da ikusleek adi entzutea eta aktiboki parte hartzea, eta zertaz hitz egin den gogoratzea. Horiek horrela, ausaz ateratako hainbat galdera oinarritzat hartuta, lau gonbidatu elkarrizketan aritu ziren eta finantzaketaren inguruko proposamen eta esperientziak aurkeztu zituzten.

Nortzuk izan genituen bidelagun?

GRETA FRANKENFELD. Calala Fondo de Mujeres fundazioko programen arduraduna. Argentinarra, feminista, bokazioz poeta. Kazetaria. Prestakuntza: gizarte-aldaketarako eta bakerako komunikazioa, generoa eta deskolonizatzea. Esperientzia: gizarte-aldaketarako hezkuntza eta komunikazioa.

ITZIAR RUBIO. Aliantza estrategikoen eta fundrising atalaren arduraduna Alboan fundazioan. Diziiplina anitzeko espezialista da berrikuntza sozialean, negozioen garapenean eta gizarte ekintzailertzan, eta 15 urte baino gehiagoko esperientzia du lantaldeak gidatzen Euskadin, Europan eta Latinoamerikan. Marketineko irakaslea da eta esperientzia handia du merkataritza-ekintzan, finantziario-bilaketan eta aliantza estrategikoen sorreran.

JAVIER MORENO. FonRedess funtseko presidentea. Bazkide kooperatibista Fiare Banca Etica, Oikocredit eta Coop57 erakundeetan. Finanzas Éticas Fundazioko Ereduzko Erakunde Bazkideen Mahaiko kidea. Gai hauei buruzko hainbat graduondokotan irakasle: ekonomia solidarioa, gizarte-ekintzailertza, finantza etikoak eta giza garapen iraunkorra.

KIKELABIÁN. Artista eta arte eta gizarte-berrikuntzako Kubbo konpainiaren zuzendaria. Acumen Fellow, LabThysseneko aditu-taldeko kidea eta Berrikuntzako tutorea Reina Sofía Goi-mailako Musika Eskolan. Animea eta politika publikoak asko gustatzen zaizkio, eta baita dantzari onaren plantak egitea ere.

Hasi da partida.

Gure bingolari Marisa Lafuentek, gonbidatuak labur-labur aurkeztu ondoren, ontzia birarazi zuen. Galderak ateratzen joan ziren, norbaitek **BINGO** esan zuen arte. Hona hemen atera ziren galderak eta elkarrizketan sortu ziren zenbait ideia:

* Txosten honen ERANSKINEAN gero-
ra bidali zizkiguten eta jardunaldian
azaldu zutena aberasten duten lau
testu bildu ditugu.





BINGOA

3

Diruz gain, zer beste baliabide eta zerbitzu baliagarri eskaini ditzake oraindik ere nagusiki edo bakar-bakarrik finantzatzailatzat jotzen diren eragileek? Adibidez: aholkularitza espezializatuak, teknologiak, antolaketak eta lan-metodologiak, sare eta kontaktuetarako sarbidea, komunikazioa eta hedabideetan azaltzea, boluntarioritza...

Hain monetizatuta dagoen mundu honetan, diruz harago joateko burua zabaltzeak gure konfort-zonatik ateratzen gaitu. Horregatik, garrantzitsua da proiektu bakoitzean benetan zer behar den hausnartzea. Erakunde asko pro bono laguntza eskaintzen hasi dira, askotan beren EGEn politikaren barruan, eta garrantzitsua da laguntza benetan kualitatiboa dela eta jasotzen duenari balioa ematen diola ebaluatzea.

Zeregin, zerbitzu edo baliabide askori lotutako laguntzak, zeinak, orokorrean, kudeaketari, bideragarritasunari, marketinari eta komunikazioari lotuta baitauden oraindik ere. Halaber, oso ondo etorriko litzateke erakundeei balio-kateak osatzen eta harreman estrategikoak ezartzen laguntzea.

Eta oso beharrezkoak izango liriateke, adibidez, zaintzarako eta buru-osasunerako laguntzak (gero eta estuago dabilten erakundeentzat).

Alde horretatik, erakundeek pro bono babesa eskaintzeko joera horrek badu arrisku handi bat: monetizatuta dagoen mundu honetan, dirua dutenek eskaintzeari uztea, babesa soilik eskaintzeko.

Ezinbestekoa da oreka dinamiko eta moldaeraz bat aurkitzea.

Oraingoz dirua behar dugu!

1

Zer inertzia- eta ohitura-mota gainditu beharko liriateke finantzaketaren inguruan estrategia eta harreman berriarantz joateko?

Pentsatuz konfiantza, aitortza eta elkarrekikotasuna eragin behar ditzutela, dirua daukanaren eta banatzeko arauak ezartzen dituenaren botere-posizioak baldintzatu gabe.

Gainditu behar dugun inertzia nagusia mesfidantzarena da.

Konfiantza-giroa sortzeko eta aurrean ditugun pertsonengan konfiantza izaten ikasteko baldintza egokiak jarri behar ditugu.

- **Aldaketa hori barrutik hasi behar dugu, geure baitatik, sistema aldatu eta besteak aldatu zain egon gabe.**
- **"Barne-errebisionismo gehiago eta kanpo-kritika gutxiago".**

Finantzaketako harreman eta estrategiak hobetzeko garrantzitsua da erakunde finantzatzaileak eta eskatzaileak proiektuetara konfiantzaz hurbiltzea, haien erronkak, premiak, prozesuak, emaitzak eta abar ulertzeko.

7

Eragile, programa edo deialdiei dagokienez, zein jardunbide on eman diezagukezu, guretzat desafiatazailerik eta aberasgarria izan daitekeena?

Ereduak ereduak lekuetatik kanpo eta erakunde finantzatzaile eta filantropiko handietatik harago bilatzea. Inspirazioa hartzea beste leku batzuetan eta beste eragile txikiago batzuek komunitatean bertan gauzak egiteko dituzten moduetan. Adibidez, ekonomia sozial eta solidarioaren printzipio honi jarraitzea: *banaketa eta elkarrekikotasuna bilatzea*, gure eragin guztiak gizartearentzat eta planetarentzat onak izatea, eta hori guztia gure balio-kate osoan txertatuta egotea.

Eta gauza oso zehatz bat: finantza-proposamenetara hurbiltzea, hala nola banka etikoarenetara eta haien abal sozial mankomunatudun maileguetara, harreman ekonomikoak birdimentsionatzen baitituzte, elkarri laguntzeko sareei balioa emanez.

Beste tresna edo eragile batzuk ere aipatu zituzten, ur-jauzi erako dohaintzak eta gai publikoetako aholkularitzak, adibidez. Gehienok ez genituen ezagutzen, eta aztertu beharko ditugu.

9

Funtsezko zer alderditan jarduteak du lehentasuna, finantzaketa-sistema eta -harremanak hobetzeko?

Adibidez: burokrazia, lehiakortasuna, behin-behinekotasuna, ebaluazioa...

Konfiantza da oraindik ere gai nagusia, malgutasunarekin eta gardentasunarekin batera. Kontrolatik konfiantzara igarotzeko premia hizketan arituginen, erronkari elkarrekin aurre egin behar diogulako eta elkar babestu behar dugulako.

Baita dirua dutenen eta eskatzen dutenen arteko botere eta menpekotasun-harremanak hausteko edo arintzeko modu eraginkorrak bilatzeaz ere.

6

Finantzatzaileek eta finantzaketa jasotzen dutenek zer-nolako eragin, inpaktu eta itzulkin espero dituzte, eta nola egokitu daitezke iguripen horiek inbertitutako baliabideen eta erronkaren konplexutasunaren arabera?

Zer jartzen da jokoan zer emaitza lortzeko?

Prestigioa eta arriskua daude jokoan. Erakunde finantzatzaileentzat, bi kontzeptu horiek oso presente daude, zuzenean eragiten baitiete beren marka-pertzepzioari eta merkatuari.

Finantzaketa eskatzen duten erakunde batzuentzat ere, haien ospea eta markari lotutako balioak oso garrantzitsuak dira, beren komunitatea sinesgarri egiten dutelako.

Adostutako proiektua ahalik eta ondoen gauzatu nahi dute guztiak, eta, aldi berean, honako hauekin zerikusia duten gaiak jartzen dira martxan: garrantzia, ikusgarritasuna, eragina izatea, jarraipena eman ahal izatea...

Hori guztia, berriz ere, konfiantzak zeharkatuta: bidelagunak aukeratzeko, konfiantza bermatzen duten agenteak bilatzea, alderdiak zein arrisku hartzeko prest gauden hausnartzea eta marra gorriak zehaztea (halakorik badago).

Eta konfiantza izatea, alderdien arteko harremanetik eta elkarriketatik abiatuta, baina egiten utziz.

8

Beste esparru ekonomiko eta produktiboetatik zein kontzeptu, tresna eta jardunbide hartu eta erabili ditzakegu?

Jardunbideak esportatzea baino, asmoa da kultura aldatzeko aukera ematea, bi noranzkoetan.

Eta hori oinarritzora jotzetik hasten da, giza traturak, harreman-negozioaren ardatza pertsonengan jarriz.


Erakunde tradizionalagoetan aldaketak dinamizatzen eta kontrako tesuinguruetan proposamen berriak sartzen saiatzen ari diren pertsonengan pentsatzea.

"Matronatua" dibertsifikatzea pentsatzea.

"Kooperantoaren" itzultzaileak bilatzea.

Eta hortik, kutsatuz joatea, lotura sendoagoak sortzen eta erantzunkidetasuna handitzen saiatuz.

- **"Inplikatura gauden alderdi guztiok jarrera aldatu behar dugu, bai aretoan gaudenok, bai jakin ez dutelako edo kontua haiei ez dagokiela uste dutelako etorri ez direnek".**





BINGOA

11

Nola joan gaitzke proiektu berri edo zehatzak laguntzetik harago, egiturak, antolaketa, eragiketak eta elkarlan-sare- eta ekosistemak babesteko?

Bidea elkarrekin eta helburu komun batekin eraikitzea pentsatzea, deialdian eta proiektu zehatzetan baino gehiago.

Hortik abiatuta, **elkarrekotasun handiagoko harremanak bilatzea** (*nork bere zereginak, eskumenak eta erantzukizunak zein diren jakinik*) eta **garrantzi gehiago ematea egiturazko eta epe ertain-luzerako** (*gutxienez 3 urte*) **babesei, dauden sareak dentsifikatzeari eta ahaleginak, baliabideak eta balioa gehitzen dituzten elkarlanak bultzatzeari.**

Konfiantza izateak dakarren arriskua onartzea. Egiten joatetik ikastea, eta, hortik abiatuta, ebaluatzen eta modulatu joatea.

Bi lagunek batera esan dute BINGOOO!

Irabazlea zein den jakiteko, bikoitiak edo bakoitiak aukeratu dituzte eta da-doa bota dugu.

Yolandak irabazi du!

Saria? **Altxor txiki bat, Lucía Egaña eta Giuliana Raccoren** *La cultura no es una autopista, los museos podrían ser jardines liburu.*

Ontzian geratu ziren beste galdera batzuk:

2

Nola egokitu daitezke finantzaketa-ibilbideak dagozkien agertokieta-
ra, eragilearen zein finantzatzeko egitasmoaren neurri, konplexutasun eta heldutasunaren arabera?

4

Nola egin aurkezpen-, balorazio- eta justifikazio-prozesu sinple, arin eta laburragoak, aurkezten diren eragile eta proiektuen errealitatera egokitu daitezten?

5

Nor geratu da finantzaketarako sarbiderik gabe, nahiz eta egitasmo baliodunak izan, eta nola zuzen dezakegu hori?

Zer ezaugarri izan beharko lituzkete normalean baliabide horiek eskuratzen ez dituzten edo zeharka eskuratzen dituzten eta ekimenei protagonismoa ematea eta talde ahul, mendeko edo periferikoen subiranotasuna sustatzea helburu duten funts eta deialdiek?

10

Zer ezaugarri izan beharko lituzkete finantzaketa-programa eta -deialdiek lehiakorragoak ez izateko (bai finantzatzaileen artean, bai finantzatu artean) eta kooperatiboagoak izateko, interesak batzeko, elkarrekin jarduteko?

12

Nola zaindu behar dira erronka bati elkarrekin aurre egiten dioten eragileen baldintza materialak, aliantzak ezartzean desorekarik eta asimetriarik sor ez dadin?



change



LONJA

Aretoa bestela antolatu genuen. Burtsarekin eta bingoarekin sinbolikoki jolastu ondoren, amaitzeko lonja egin genuen, itsasotik ekarri berri den arrantza enkantean saltzen den handizkako azoka. Aulkiak biribilean bildu genituen, arrainontziaren itxurak egiteko, eta, ideia hori indartzeko, hondoan arrantza-sareak jarri genituen, zintzilikatuta, eta baita zenbait kaxa ere, koloretako kartulinazko arrainekin, eta amu moduko batzuk.

Arrainontzia eztabaida partizipatiboa sustatzeko metodologia bat da. Zirkulu zentrokideak prestatzen dira: erdian zirkulu txiki bat, hizketan ari diren pertsonentzat (6 aulki, 5 pertsona, aulki bat beti libre); eta haien inguruan zirkulu bat edo gehiago, begiratzen ari diren pertsonentzat. Kanpoan daudenak, elkarri-zketan parte hartzeko, libre dagoen aulkian eseri daitezke.

Amua botatzeko, hainbat galdera egin genituen

- Nolako esperientziak dituzue finantzaketaren inguruan?
- Zer premisa, baldintza eta prozedura aldatu beharko lirateke, eragileen arteko harremanak eta heldu beharreko erronken eragin eta itzulkinak hobetzeko?
- Nola egin daiteke hori?

Berriketan aritu ginen ia ordubetez. Partaideei eskatu genien interesgarriak iruditzen zitzaizkien ideiak koloretako arrainetan idaztea eta sarean zintzilikatzea.

Saioaren amaieran, elkarrekin harapatutako arrainak genituen sarean. Ondoren, sarean zegoen guztia antolatu eta aurkeztu genuen.



LONJA

Politika eta ekonomiak

- Aldaketa politikoek desoreka eragiten dute, eta horrek eragina du kontratuetan.
- Publikoa dena ez dago eztabaida horietan. Ohiko eredu jarraitzen die, aldaketa politiko alderdikoiei eta hauteskunde-zikloei loturik.
- Kargu politikoetan hainbeste ez sostengatzea, baizik eta irauten duten teknketan.
- Erakundeetan (edo beste eragile batzuetan) pedagogia-eragina egitea. **Nork egiten du pedagogia hori jasangarri?**
- Gizarte-erakundeen finantzaketaren mundua zabala eta anitza da, erakunde-kopurua adina.
- Zerbitzu produktiboak ematen ditugulako finantzatzen gaituzte, eta zerbitzu horiek kontratuei lotuta egon beharko lukete, ez dirulaguntzei edo filantropiarri.
- “Ilegalismoak”, “hutsak” “egi bihurtzea” “informalismoak” “kutxa-

rako ateratzen joatea”.

- Ekonomia feminista.
- Abal sozial mankomunatuak (ez-ondarezkoak). Lurralde- eta komunitate-nodoak. Laguntza-sareak baloratzea.
- **“Sareak dentsifikatuz”** finantzatzea. Elkar bermatzeko sozietateen (EBS) kasua.
- Partizipazioak partaide guztien artean banatuta ordaintzea. Ezingo luketenei sarbidea ematen dieten bekak, baina pertsona horiek nor diren adierazi gabe.
- **Prezio librea. Zer balio eskaintzen dizu?**
- **Daukatenei dirua ateratzea!** (proiektu erakargarri bat saltzea, beren hizkerarekin).
- Prozesuak luzeak dira, eta larrialdiak ez dituzte berehala konpontzen. Diruzaintzaz arduratzea.

Konfiantza

Nola sor ditzakegu konfiantzako eta elkarrizketarako guneak hain anitzak diren pertsona/eragileentzat?

- Konfiantzaren mugak zabaltzea. **Arriskuak elkarrekin hartzea.**
- “Hipotetikoki...”, “gauzak egiten ditugu...”.
- Ikerketa- eta ekintza-talde bat sortzea, gizarte- eta kultura-sektorearen eta enpresa-sektorearen arteko konfiantza- eta konpromiso-loturak nola sortu aztertzeko.
- Gustukoen ez ditugun erakunde pribatuei gure baldintzak jartzeko jakitea.
- Beste hizkera batzuk ikastea, elkar uler dezagun.
- Konpromiso-sareak sortzea.
- Erakundeak konfiantzaz tratatzea, maitasunez tratatzea.
- Ikusi nahi dugun aldaketa transmititzea, **“bitartekoari” arreta jarritz.**
- Konfiantzako gune berriak sortzea, beste leku batzuetan mugituz. Ibilbidea aldatzea.
- Motibazioa ez galtzea eta aldaketa eragin daitekeelako uste osoa izatea. **Artea eta kultura erdigunean jartzea.**
- **Itxaropena izatea beti.**

Modu berriak

- **Sormen iraultzailea**, estrategia disruptiboak sortzeko.
- Helburu pertsonalak **asmo argia izatea eta haren gainean laser ikuspegia jartzea** geldiezinak direla jakitea.
- **Arriskatzea, bilatzea, modu berriak**, beste batzuekin batera, zabaltzea...
- Giza harremanetarako askotariko guneak **sortzea, aprobeztatzea eta bilatzea.**
- Finantza-estrategia beste era batera pentsatzen hasia. **KOLEKTIBIZATZEA.**
- Denbora, gogoia eta konpromisoa dituzten pertsonak bilatzea.
- Finantzaketa iraunkor eta berritzailea bilatzea, proiektu paregabeak aurrera ateratzen dituzten pertsona-talde baliotsuei eusten dietenak.
- “Enpresa ahaltsu maltzurretara” zabaltzea, aurreiritzirik gabe.
- Nola jarraitu ikasten? Martxan gaude. Gertatzen zaiguna normala da.

Pribilegioak eta lerro gorriak

- Gure lerro gorriak **ezagutzea: norekin ez dugu lan egin nahi?**
- **Lerro gorria pribilegio gisa.**
- “Dagoena hartzeko” kontraesana onartzea.

- **Kultura balio eta eskubide gisa**, babes publiko eta pribatuarekin.
- **Artistek duten garrantzia**, konponbideak emateko ez ezik, baita galderak egiteko ere.
- **Txikiek eta antzekoek ez ezik**, anitzek ere bat egitea. Handiak eta txikiak, helburu bateratuak eraikiz.
- **Erritmoa eta konstantzia (mailu txikia dugu).**
- **Tentsioa.**
- Nork bere baldintzak jartzea eta argi eta garbi adieraztea, partekatu eta/edo negoziatu ahal izateko.
- **“Mailegua eman” diezagukeela dakigun jendea.** Formalizatze-ko baldintzak eta bermeak ondo jartzea.

- **“Gure” baldintzak jartzea.**
- **Pentsatzea nor ari den kanpoan** geratzen eta/edo nork ez daukan sarbiderik/paperik.
- **Gure pribilegioak onartzea eta jokoan jartzea**, beste proiektu sozial batzuei laguntzeko.

Festa denon artean ordaintzen dugu!

- **Txikiak, handiak, askotarikoak.** Elkarrekin, **interes komun edo osagarriak dituztelako.**
- **Askotariko erakundeek helburua partekatzea.** Finantzaketa elkarrekin bilatzea.
- **Elkarrekin bai, arriskatzen gara!**
- Elkarlanerako eta partekatze-ko dibertsitatea (handiak eta txikiak), baina benetako harremanekin eta helburu bateratuekin.
- **Beharretatik hitz egitea, elkarrekin jarduteko.** Denok egon gintezke ontzi berean.
- Eragile eta harreman posible guztiei atea irekitzea, baina arretaz.
- Eragile instituzional, politiko, enpresarial, militanteak... festen bitartez lotzeko ideia atsegin dut.





05 Negozio-bazkaria (arratsaldean)

Euskal Herrian esan ohi dugunez, tratu garrantzitsuak bazkalorduan egiten dira, elkarri bostekoa emanez.

Horretan uste osoa jarrita, goizeko saio biziaren ostean bazkaltzera joan ginen.

Mahaien inguruan askotariko mahaikideak bildu genituen, mota eta jatorri desberdinetakoak.

Indarrak berritzeko jatea, ordura arte landutako guztia digeritzen joateko, elkar ezagutzen jarraitzeko.

Arrakasta handia izan zuten barazkiz betetako alberjniek, beren krema gainean; urraburuak, patatekin bilbotar erara prestatuak; eta sagar erreak.

Eta bazkalondoan, kafea hartzeko unean,


MAHAI-ZAPI ALDAKETA!

Jardunaldiaren azken-aurreko tartean, finantzaketa osasungarri eta orekaturako dieta sortu genuen elkarrekin.

Helburua zen elkarriketak sustatzea, funtsezko elikagai formatzailer, erregulatzaile eta energetikoak identifikatzeko, eta baita elikagai horiek prestatzeko moduak ere, gero eragile anitzeko harremanak eta finantzaketa-estrategiak elikatzeko.

Horiek horrela,

- **ELKARREKIN SUKALDEAN dokumentua** gehitu diogu txostenari; izan ere, jarduera aurkezteko eta zenbait elikagai-motaren pistak emateko erabili genuen.
- Horrez gain, elikagaiak prestatzeko antolatu genituen **bost mahaien errezetak bildu ditugu.**





ELKARREKIN SUKALDEAN

Nola prestatu dieta bat, prekarizazioaren kontrako eta elkarlanaren eta erantzunkidetasunaren aldeko elikagaiekin, finantzaketa-estrategiak eta eragile askoko harremanak modu orekatu eta osasungarrian elikatzeke?

- Elikagai formatzaile, erregulatzailerak eta energetikoak.
- Neurri edo ekintza zehatz gisako errezetak.

Erronkak gauzatzeko aldera harremanak ezartzeko eta baliabideak eta dirua eskuratzeko eta banatzeko garaian, *jatearekin bezala gertatzen da*.

Era guztietako aukera gastronomikoak daude, eta dieta batzuk beste batzuk baino osasungarriagoak dira.

Kate trofiko piramide handi baten edo erlazio ekomendekoen sare baten gisa ulertu dezakegu. Janari lasterra jan edo gure elikagaiak landatu ditzakegu, denontzako eltzeta handiak prestatu ditzakegu edo *nork bere tupperra prestatu*, etxe ondoko dendan erosi edo erosketa online egin.

Erabaki guztiei eredu sozial, ekonomiko eta kultural jakin bat dagokie.

CHANGEEn dieta osasungarri, orekatu eta zapoetsuen aldeko apustua egiten dugu, prekarizazioaren kontrako eta elkarlanaren eta erantzunkidetasunaren aldeko elikagaiak atsegin ditugu.

Dieta horietarako menuak elkarrekin prestatu ditzakegu, eta jatea bezain garrantzitsuak dira *prestatze-lanak eta bazkalondoak*.

Getxon era horretako bazkalondo batez gozatu ahal izango dugu. Helburua da askotariko finantzaketa eta eragile askoko harreman-eredu eta -estrategiak elikatzen dituzten dieten inguruan berriketan aritzea.

Horrelako ereduak behar bezala asimilatzeko eta digeritzeko osagirik egokienak identifikatuko ditugu, eta argi izango dugu ager daitezkeen osagai edo arketipoak ez direla errezeta edo menu itxiak izango, baizik eta egoera eta testuinguru desberdinetarako prestatu eta egokitu beharko diren aukerak.

Horri buruz pentsatzeko, gure dietak eduki behar dituen elikagai-motak hartuko ditugu kontuan, **metafora gisa: energetikoak, formatzaileak eta erregulatzailerak**. Elikagai horiek hainbat modutan konbinatu daitezke, honako hauen arabera: **erronkari dagozkion harreman-motak, baliabideak eta finantzaketa**, eta esku hartzen duten eragile-motak.

Izan ere, ez da gauza bera:

- **Sortzen ari diren edo egoeraren arabeko proiektuei lagundu** nahi izatea edo ibilbide luzeko prozesuak lagundu nahi izatea.
- **Tokiko edo testuinguruko problematikei** edo erronka global edo sistemikoei heltzea.
- **Eta hori eragile txiki edo informalen artean**, erakunde edo sare handiekin edo askotariko eragileekin egitea.

Elikagai Energetikoak



Gorputzari energia ematen diote, jarduerak egiteko eta bizi funtzioei eusteko, **esaterako odola ponpatzea, arnasa hartzea edo gorputzaren tenperatura mantentzea**. **Prekarizazioaren kontrako karbohidratoak eta lipidoak sarean**, zeinak elikagai hauetan baitaude, besteak beste: **egiturazko gutxieneko sostenguak, elkarrekin diseinatutako prozedura desburokratizatzaileak, ibilbide egokituak, elkarrekin sortutako adierazle-inpaktu sistemak, denbora eta agenda komunak eta oinarrizko beste baliabide batzuen kudeaketa partekatua**.

Elikagai Formatzaileak

Hazteko eta bizitza garatu eta mantentzeko eraikuntza materialak ematen dituzte. **Zelulak eta gorputzaren osagaiak** (hezurrak, muskulak, ehunak...) eta defentsa sistemak eraikitzen, berritzen edo kanpoko eragile eta infekzioetatik sendatzen laguntzen dute. **Proteina kolaboratzaileak; erronkei modu kolektiboan heltzea ahalbidetzen dute, eta, besteak beste, azpiegitura eta erreminta mutualizatuen moduko elikagaietan daude, ezagutza-gaitasun osagarrietan, printzipio eta interes komunetan oinarrituz definitutako programa eta proiektuetan edo pizgarri sistema adostuetan**.

Elikagai Erregulatzailerak

Gorputzaren funtzio fisiologikoak eta prozesu kimikoak erregulatzea ahalbidetzen dute. Ezinbestekoak dira gainerako elementuek dagozkien betebeharrak betetzea ahalbidetzen dutelako. **Transware bitaminak**; energia prozesu eraginkor, efiziente eta afektiboetan metabolizatzen dute. Harreman mineralak; **konfiantzaren, aitortzaren eta elkarrekikotasunaren guruinen sekrezioa erregulatzen dute**. Elikagai erabakigarriak dira honako hauek zehazteko: *erakundearen gobernantza ereduak, balizko inplikazio-mailak eta parte hartze moduak, autonomiaren eta interdependentsiaren arteko oreka, zilegitasun- eta botere-fluxuak edota interes eta espektatiben kudeaketa garden eta erantzunkidea*.





1. MAHAIA: UMAMI-PISTOA ARRAUTZA FRIJITUAREKIN!

Anfitrioiak: Elena Brea

Sukaldariak: Álvaro Fierro, Kike Labián, María Molinuevo Zaballa, Paula Gutiérrez-Ponte, Piter Blanco

1. Aldez aurreko elkarriketak, aperitibo gisa

Bazkaltzen dugun bitartean, eta dinamikari ekin aurretik, nork parte hartzen duen proiektuari buruz hitz egin du, esperientziak eta ikuspegiak partekatu ditugu.

Gai hau atera da, besteak beste: dibertsitatea, deialdietako aukera-irizpide gisa.

Piterrek bere buruari galdetu dio zergatik onartzen den zuzenean Mohammed ez dela Iker bezain euskalduna, eta zer esan nahi duen lantalde bat askotarikoa izateak.

Gai konplexua da.

- Alde batetik, kategoriak beti dira murriztaileak eta baztertzaileak
- Bestetik, ezin dugu alde batera utzi beti pertsona berek jasan duten mendetako diskriminazioa.

“La cultura no es una autopista, los museos podrían ser jardines” liburuko glosarioa mahaigaineratu dut, ereduak jardunbide gisa.

Janariaren gaiaren ildotik, Paulak San Frantzisko auzoko Munduko arrozak jaialdiaz hitz egin du, askotariko auzotarren elkarbizitzaren eta auzoaren defentsaren adibide gisa.

- Hala ere, bere funtsari eusten ote dion zalantza dituzte batzuek, orain auzo oso ezaguna baita.

Mahaikideak kezkatzen dituen beste gai bat beren proiektuen eragina nola neurtu da.

Mariak azaldu digu musika-praktika kolektiboa nola erabiltzen duten gizarte-bazterketaren aurka borrokatzeko.

- Kontatu digu neskato bat hasieran ez zela ausartzen ikastetxera joateko etxetik ateratzera ere, eta orain haur-orkestra batean jotzen duela
- “Nola bihur dezaket hori eraginarenean adierazle?”

Batzuetan, zenbakiak engainatu egiten dute, eta gutxiago adierazten dute eraginaz neskatoaren istorioaz baino. Hala ere, adierazleetan zenbakiak erabiltzen ditugu beti, eta formulario batean ez genuke horrelako istoriorik sartuko.

Piterrek haurrentzako autonomiaren proiektuaz hitz egin du. Proiektu horretan, *haurrak eskolara bakarrik joateko antolatzen dira*.

2. Elikagaiak prestatzeko prozesua

Taldea loguratuta dago eta kafe-premia du. Beraz, kosta egin zaigu sua piztu eta martxan jartzea.

Elikagai energetikoekin hasi gara, egituraren funtzionamenduen oinarriak ezartzen dituztenekin. Egitura sinplifikatu eta egonkor bat bilatu dugu. Kikek auto-jasangarritasunaren arrautza frijitua proposatu du. Asmoa da erakundearen egi-

tura bere kasa eustea, dirulaguntzen beharrik gabe, bere zerbitzuen bidez (*Kubbok egiten duen bezala*).

Ba al dago nork bere buruari eusteko beste modurik? Paulak bere esperientzia proposatu du, erresistentzia-kutxena, alegia; eskala txikian funtzionatzen dute. Ados gaude egitura-minimoak behar direnarekin: *basmati 1' arroza eta atun-lata bat, adibidez*.

Kikek taldekideen aniztasuna proposatu du osagai gisa: profil desberdineko taldeak bilatzea, bakoitza bere arloan espezializatua, denok denetarik jakin behar izatearen orde. Eta pizgarri fiskalak kultura komunitarioarentzat, gure proiektuak erakargarriagoak izan daitezten.

Elementu formatzaileei dagokionez, geure buruari galdetu diogu interesgarria ote den finantzazileen eta proiektuen artean loturarik egotea.

Piterren iritziz, finantzazile publikoen kasuan beharrezkoa da, ikusgaitasun-mota hori delako, hain zuzen ere, bilatzen dutena. Ez gaude ziur lotzea interesgarria den: batzuetan merezi du finantzazileen zenbait baldintzazailer onartzea; beste batzuetan, ordea, hobe da egiten ari zarenaren berri ez izatea.

Badirudi tentsioa dagoela kultur eragileek proiektuaz duten ikuspegiaren eta finantzazileek duten ikuspegiaren artean. Nanak lehen *enClave-an esan zuena ekarri dut gogora*:

“azkenean, akziodunei kontuak eman behar dizkiegu”.

Tentsio hori gainditzeko, litro bat ur gehitu diogu errezetari, hau da: helburu, itxaropen eta erronka komunak bereiztea.

Piterrek gaineratu du, halaber, “batzuetan egoa askatu eta alde batera utzi” beharra dagoela, eta onartu proiektua agindu duen zinegotzi edo erakundearena dela, eta ez gurea, eta haiek ere badutela eskubidea huts egiteko, hanka sartzeko, eskatzeko eta abar. Janaria su motelean egosiko dugu, platera guk behin eta berriz esku hartu gabe prestatuko dugu.

Amaitzeko, elikagai erregulatzailer sartu ditugu: gobernantza-ereduez eta harreman-mineralez hitz egin dugu.

Kikek dio *su motelak batzuetan txinparta behar izaten duela*. Izan ere, finantzaketa jasotzen dugunoi autoestimua eta antolakuntza falta izaten zaizkigu askotan.

Paulak gobernantza-eredu horizontala planteatu du, baina erreparoko daukat.

Noiz funtzionatzen dugu benetan erakunde horizontal gisa? Eta noiz erabiltzen da horizontaltasuna dauden hierarkiak ezkutatze edo hierarkia horien inguruan nahastea sortzeko?

Orduan, eztabaidarako eta elkarbizitarako guneak sortzen dituen mahai (horizontal) on baten gainean jatearen alde egin dugu.

Amaitzeko, goizeko ideia bat berreskuratu dugu: konfiantzaren mugak zabaltzea, gure ohiko aurreiritzi, burbuila eta konfort-zonetatik atera eta gure proiektuen finantzaketan elkarrekin lan egin ahal izateko beste batzuekin topo egiteko.

Ondo ematen ez badio ere, umamia gehitu diogu errezetari, ezusteko onen bat hartuko dugulakoan.





1. MAHAIA: UMAMI-PISTOA ARRAUTZA FRIJITUAREKIN!

Errezeta: Umami-pistoa arrautza frijituarekin!

Elikagai energetikoak

- **Arrautza frijitua:** auto-jasangarritasuna.
- **Piruleta:** kultura komunitarioarentzako pizgarri fiskalak.

Elikagai formatzaileak

- **Ura:** helburu, itxaropen eta erronka komunak bereiztea.
- **Pistoa:** taldeek askotariko kideak edukitzea.

Elikagai eta elementu erregulatzaileak

- **Ordubeteen egostea:** egoa kontrolatzea.
- **Sukaldeko sopletea:** auto-antolakuntza sektorial eta sindikala.
- **Mahaia:** eztabaidatzeko eta elkarbizitzarako guneak (horizontalak).
- **Umami:** konfiantzaren mugak zabaltzea.

2. MAHAIA: ASKOTARIKO ENTSALADA

Anfitrioia-Kontalaria: Marisa Lafuente

Sukaldariak: Adriana Racca, Aintza Uriarte, Iñaki Lazaro, Julieta Andreu Pianello, Yolanda Reclusa

1. Elikagai-motak

Elikagai energetikoak

Errutinak / Sorkuntza-guneak / Kolektiboaren pedagogia / Ezagutza osagarriak / Sarean elkarlanean aritzeko gaitasun praktikoak.

Elikagai formatzaileak

Konfiantzan oinarritutako lankidetzak / Elkarrekin zaintzea / Malgutasuna / Elkarrekin egotearen poza / "Ospatzea" / Abiatze zentzugabea / Harmonia.

Elikagai erregulatzaileak

Plan estrategikoa / Adostutako printzipio etikoak / Denbora motela (gauza guztiek dute beren egoste-denbora) / Egitura-minimoak / Erabakiak horizontalki hartzea / Talde txikiak / Bilera arinak / Baliabide ekonomikoa zuzen banatzea (bakoitzari behar duena).

2. Errezeta: Askotariko entsalada

Entsalada egiten hasi aurretik, ireki ardo-botila bat, partekatu tokia eta denbora harmoniaz eta hartu arnasa. Gauza bakoitzari bere denbora ematea.

Abiatze zentzugabe honetan oso pozik gaude.

Askotariko entsalada energetiko eta elikagarri bat prestatuko dugu. Barazki freskoekin, beharrezko baliabide minimoak eta finantzaketa egokia betetzeko, sinergietan adostutako plan etikoak zapaldu gabe.

Erabakiak horizontalki hartzea eta adostea. Sortzeko guneak eta kolektiboaren pedagogiak. Besteen-gandik ikastea, sarean elkarlanean aritzea, sostengatzen lagunduko diguten ezagutza osagarriak eskuratuz. Dena harmoniaz, konfiantzaz, zaintzaz, malgutasunez eta ospatzeko alaitasunez gozatua.

3. Kontalariaren ekarpen osagarriak

Interesgarriena bazkalorduan gertatu zen. Geure burua aurkezten eta zergatik etorri ginen azaltzen hasi ginen. Oro har, asmoa zen beste batzuekin harremanetan jartzea eta **CHANGE** ekimena ezagutzea, finantzaketaren gaia jorratzeagatik.

Gure mahaiko kide gehienak arlo artistikokoak ziren. Bi baino ez ziren sektore horretatik kanpokoak. **Horietako bat tresna digitalen arloan aritzen zen, eta bestea berrikuntza aplikatuan.**

Oso interesgarria iruditu zitzaidan mahaikide guztien jarrera adeitsu eta irekia. Txartelak eta harremanetarako informazioa eman genizkion elkarri, eta atsegina izan zen lan-arloaren, jatorriaren eta zailtasun ekonomikoen inguruko esperientzia pertsonalez hitz egitea. Esperientzia





2. MAHAIA: ASKOTARIKO ENTSALADA

horieta asko seme-alaben zaintzari, gurasoei, familiari... buruzkoak ziren.

Denbora gutxi geratu zitzaigun aurreko elkarrizketan ateratako ideia guztiak landu eta mahai-zapian irudikatzeke. Eta dinamikara lotu ginenez, hasiak ziren elkarrizketen joan-etorri naturala galdu zen nolabait.

Mahai-zapian gero islatu ez zen ideietako bat **hizkuntzaren erabilera izan zen**; eta baita lanbide artistikoetan aritzen zirenek zenbaitetan esaten zutena ulertzeko zailtasuna ere. **Hala ere, ondorioztatu genuen gauza berez ari ginela, nahiz eta ezberdin izendatu.**

Horrez gain, aniztasunaren gaia aipatu genuen. Agerikoa zen bertan geunden guztiok oso antzeko gizar-te-esparrukoak ginela, eta geure

buruari galdetu genion hori nola aldatu zitekeen.

Ados geunden, erabat, **laguntza-talde edo -sareetako kide izateko premiarekin**. Hala ere, bazirudien bakoitzak bere ikuspegia zuela horrek esan nahi zuenaz.

Alde batetik, **komunitateaz**, baliabide partekatuez eta beste gobernanta-estilo batzuek hitz egin genuen; eta, bestetik, elkarrekin aurrera egiteaz, helburu komunak lortzeko.

Arreta askoz gehiago jarri genuen **eragileen arteko harremanetan finantzaketan baino**.

Nire ekarpen pertsonala, gure mahaietan nolabait bueltan bazebilena, hau da: finantzaketa eta baliabideak lortzeko **beste modu batzuk badaudela sinesteko beharra daukagu**, ezagutzen ditugunez bestelakoak; baina, benetan, ez dugu uste alde horretatik berrikuntzarik egin daitekeenik.

Hau da, **zer behar dauden badakigu**, baina ez dugu **itxaropenik aurkitzen dagoeneko badaudenez bestelako aukeretan**.

3. MAHAIA: BARAZKI-SALTSA

Anfitrioia-Kontalaria: Laura Díez

Sukaldariak: José Luis Roncero, Julian Maguna, Letizia Solanas, Marcela Cedeño, Salud López

1. Prestaketa prestatzen Elikagai energetikoak

Bazkalosteko elkarrizketan, hasteko, betiko kulturaren finantzaketaren ordezko eredu disruptiboetara buruz galdetu genion *Chat GPTri*, eta hainbat iradokizun egin zizkigun. Gero, gure bizimodua eta lana jasangarriagoa eta denbora aldetik bideragarriagoa den finantzaketa-modu batera egokitzeko prozesuan lagundu gintzakeen errezeta batean pentsatzen hasi ginenez.





Gure ustez, **egokiena oinarri on bat prestatzea litzateke**, gure barazkiak apurka-apurka hazten joango diren soro ezin hobea. Soro horrek honako hauek izan ditzake: oinarritzko soldata, hizkera jakin bat eta erronka zehatz batzuk gaitzatzeko helburu komunak. **Ereiten hasi aurretik, baratzea (txikia edo handia) sortzeko zein baliabide ditugun jakin behar dugu.**

Garrantzitsua da daukagunaren eta egiten dugunaren arteko oreka lortzea, emozioak eta frustrazioak kudeatzea; gerta liteke beste batzuk ateratzen diren lehen kimuetatik elikatzea edo bero-bolada bat etortzea eta gure uzta pikutara joatea.

Prozesu horretan lagunduko digu, **adibidez, besteen jakintzekin konektatzeak**, daukaguna partekatzeak eta ilusio partekatu erakargarriak sortzeak. Beste osagai garrantzitsu bat **enpatia** da, eta ulertzea mundu guztiak baratze bat lantzen ez badu ere, edo baratze guztiek elikagai berdinak eta neurri berean ekoizten ez badituzte ere, **denok jan behar dugula eta banaketak orekatuagoa izan behar duela**.

Garrantzitsua iruditzen zaigu jolasa prozesuen parte gisa ulertzea eta **gure egunerokoan dagoeneko egin arren kontuan hartu ez duguna ekonomikoki baloratu ahal izatea**.

Erein aurretik **lurra goldatu behar da**.





3. MAHAIA: BARAZKI-SAL TSA

Elikagai formatzaileak

Zaintzak erdigunean jarri nahi ditugu, ekipoaren eskuragarritasuna eta energia kontuan hartuta. Landatu ditugun barazki horiek labean egoki erretzeko, **denbora ondo neurtu eta mugak jarri behar ditugu, gehiegi erre ez daitezten.**

Temperatura eta denbora garrantzitsuak dira. **Zein barazki erre ditzakegu labean batera, elektrizitatea aurrezteko?**

CHANGEren moduko topaketak antolatu ditzakegu, hausnartzeko eta jakintzak eta baliabideak partekatzeke. Elkarrekin zein elementu ongi ematen duten ikasi dezakegu eta, **errezetak funtzionatzen badu, kudeaketa sistematizatu eta funtzionamendua errepikatu, lan-prozesu guztiak baloratu, ez emaitzak bakarrik.**

Gure lagun sukaldariari ere eska diezaiokegu laguntza, guk baino askoz esperientzia gehiago baitu.

Zer gertatzen da labeak fabrikatzen dituztenekin?

Erakunde publiko eta pribatuekin ditugun harremanak landu eta horretan trebatu behar dugu, hausnartzeko erabiltzeko eta **gure platerak zukutsuagoak izan daitezten lortzeko.**

Elikagai erregulatzailerak

Barazkiak labean erre ondoren, **barazki bakoitzaren mamiari nola eutsi jakin behar dugu, gehiegi motibatuz eta mila gozagarri gehituz gero perbertsioan eror gaitzkeelako.**

Ezetz esaten ikasi behar da.

Agian, beste proiektu batzuekin bat egin dezakegu. Izan ere, **nik ez ditut alberjiniak landatzen, baina nire bizilagunak bai.**

Alde horretatik, **garrantzitsua da harreman horiek horizontalak eta konfiantzazkoak izatea, baliabide kooperatiboak sortu ahal izateko.**

Garrantzitsua da epe luzerako laguntza izatea (**hiru urterako dirulaguntzak**) eta proposamenen jarraipena egitea..

3. Errezeta: Barazki-saltsa

Gure errezeta saltsa bat da, aurretik landu eta **erre ditugun barazkiekin** egina.

Zenbait plateri ondo baino hobeto datorkien saltsa aberasgarria.

Gure proposamena da eragileak eta baliabideak lotzen dituen irudi bat sortzea, ingurunea eta proiektuen egunerokotasunaren errealitateak ezagutzeaz gain, baliabideak dauden tokiekin lotzen dituen.

Irudi independentea da, eta ez dago inolako proiektu, erakunde edo instituziori lotua.

Ez dugu erabaki irudi horren gastuak nork ordain ditzakeen, **baina erakunde guztiek elkarlanean ordaindu dezakete edo erakunde publikoek kontratatu.**

4. MAHAIA: ENPANADA

Anfitrioia-Kontalaria: Fernanda Bilbao

Sukaldariak: Aitor Torre Urresti, Alberto Chico Castellano, Greta Frankenfeld, Iranzu Guijarro, Karitte Alegria

1. Lehen minutuak mahai- haian

Eseri bezain laster, nola izena dugun esan genion elkarri, eta, gero, elkarren berri gehiago jakiteko, aurrezpen osatuagoak egin genituen: zein proiektutan lan egiten dugun eta proiektu horiek non gauzatzen diren eta zein oinarri dituzten.

Horiek horrela, konturatu ginen bagenituela kontu batzuk berdin, eta aurrerantzean bilerak egingo genituela, beharbada.

2. Bigarren zatia, mahai- zapia aldatuta

Kafearekin batera, dinamika arautua jarri genuen martxan. Zer pauso emango ziren azaldu ondoren, jaso genituen, batetik, ekarpenak idazteko mahai-zapi bat; eta bestetik, elikagai-motei buruzko fitxak, errezeta bat sortzeko adibide gisa erabiltzeko.

Argibide batzuk eman eta gero, **20 minutu** inguru hartu genituen ideiak postitetan idazteko, gero lantze aldera. Ondoren, ideia horiek guztiak bildu genituen:

Elikagai energetikoak


Epe luzerako finantzaketa, esperimentazio- eta hutsegite-marjinarekin / Behar adinako taldea, prestatua, baldintza duinekin eta arrazoizko lan-epeekin / Zeregin argiak / Proiektu partekatua / Ibilbide moldagarriak / Taldeen koordinazioa eta aitzindariak / Errazte- eta laguntza-arduradunak / Egitura-minimoak / Denbora eta baliabideak maximizatzeko moduak / Burokrazia arintzeko prozedura / Inpaktu-adierazleak.

Elikagai formatzaileak

Erritu partekatua (ohiturazko gune eta topaketak, bat egiteko, berritasunez hitz egiteko eta elkarrekin gaudenean boteretsuagoak garela gogorarazteko) / Tokian/Komunitatean errotea / Ikaskuntza komunitarioko komunitateak, kolektiboa den hori indartzeko eta errote-, defentsa- eta erresistentzia-sistema gisa / Guztiona den hori / Metodologia / Guztiontzako azpiegitura, tresna eta ezagutzak / Premiak ezagutzea (taldea, finantzaketa, erabiltzaileak).

Elikagai erregulatzailerak

Gardentasuna, prozesu argi, partekatu eta adostuak / Balioak eta ezagutzak transferitzea / Balioekin eta xedearekin engaiatzea / ECRO kudeaketa gardena / Botere-harremanak esplizituki kudeatzea / Autonomiaren eta interdependentziaren arteko oreka / Afektibitatea, interdependentziak eta konfiantza / Maitasuna eta mugak / Prozesu afektibo, eraginkor eta efektiboak.





4. MAHAIA: ENPANADA

3. Elikagaiak prestatzeko prozesua

Hitz garrantzitsuak bateratu ondoren, kontzeptu horiek bakar batean biltzeko elementu bat nola sortu pentsatu genuen, taldeka, eta, konparazio gastronomikoari eutsiz, elkarrekin **enpanada bat** egitea proposatu genuen, prestatzeko fase guztiak kontuan hartuta.

1. fasea: Ore ama

Finantzaketa bilatzeari dagokionez, interesgarria litzateke **poliki-poliki** gauzatzeko plan bat egitea, eman beharreko urratsak patxadaz pentsatzeko, eta, **gainera, esperimentatzeko eta huts egiteko nolabaiteko marjina edukitzea**. Hau da, *ore amarekin egiten den moduan, zapiari sartu eta hartzen uztea*.

Gainera, ezinbestekoa da **erraztea eta laguntza kontuan hartzea**, oreari arreta jartzea eta zeregin argi eta moldagarriak sortzea.

Lehen fase hau gauzatzeko, kome ni da taldea behar adinakoa izatea, **taldekideak horretarako prestatuta egotea**, baldintza duinetan lan egitea, epe koherenteak bete behar izatea eta ondo zaintzea; *orearen kasuan, poliki eta kontuz oratzea*.

Lehen fase honetan, garrantzitsua da hondakinik **ez sortzea eta baliabideak ez alferrik galtzea: NO WASTE**. Hau da, denbora, baliabi-

deak, bitartekoak, energia pertsonala eta abar ez xahutzea, adibidez, **buokrazia nekagarriarekin**.

2. fasea: Betegarria

Finantzaketaren bigarren fasean, uste dugu garrantzitsua litzatekeela egiturak, **ezagutzak eta tresnak guztion interesaren arabera mutualizatzea**. Hala, **hobeto aprobetxatzen dira, besteak beste, giza baliabideak eta baliabide ekonomikoak**.

Egokia da, halaber, kudeaketa-prozesuak, hau da, **bateratuko ditugun ohiturak kontuan hartzea** (*adostu beharreko talde-ohiturak, adibidez: ordutegiak, biltokiak...*).

Ikaskuntza **komunitarioko tokiko taldeak sustatu beharko** lirakeke, kolektiboa dena indartzeko, eta defentsa-egitura edo -sistemak sortu, **lantaldeak, finantzatzaile-taldeak, erabiltzaile-taldeak...** eratzeko.

3. fasea: Labean erretzea + gaineoak

Lehen bi faseak bete ondoren, **labea temperatura egokian berotu behar da**.

Finantzaketa-prozesuetan kontuan hartu beharreko faktore "beroentako" bat **argitasuna da gardentasuna**:

- xedean eta helburuetan.
- balio eta harremanetan.
- botere-modu eta zereginetan.
- erabili beharreko baliabideetan.

Hori guztia zenbait gaineokorekin **gozatua**, gaizki-ulertuak eragozten edo konpontzen laguntzeko, **zaintza eta harmonia bultzatuko dituzten dinamiken bidez**.

4. Amaierako bi ohar

- Sortu nahi dugun horrek zer tamaina izango duen kontuan hartzea, zer baliabide behar ditugun jakiteko:

- enpanada handia, ertaina, txikia;
- zenbatentzat; zein mahaikiderentzat;
- azkar kontsumitzeko edo denbora luzerako.

- Proiektuak bultzatzen dituzten taldeetan finantzaketari buruzko ezagutza partekatu gehiago izan beharko lituzkete. Lantalde espezifikoak eratu beharko lirakeke, finantzaketa-metodo eta -formula funtzionalak partekatze eta elkarrekin sortzeko.





5. MAHAIA: BULEGO TEKNIKO PARTEKATUA (BTP)

Anfitrioiak-Kontalaria: Caroline Jerome

Sukaldariak: Ana Urgoiti, Javier Moreno Ibarra, Juankar Bilbao, María Díaz

Durillo, Unai Gaztelu

1. Elikagai-motak

Osagai hauek premia estruktural, kolaboratibo eta afektiboak betetzen dituzte.

Elikagai energetikoak

- **Konfiantza:** elkarrekin lan egiteko balio nagusia.
- **Egitura-minimoak:** oinarriko azpiegitura partekatua ziurtatzea.
- **Burokrazia arintzea:** izapideak eta prozesuak erraztea.

Elikagai formatzaileak

- **Mutualizatzea eta open source:** ezagutzak eta interes komunak irekiak izan daitezten sustatzea.
- **Oinarri soziala:** laguntza eta partaidetza komunitarioko oinarri sendoa sortzea eta elikatzea.

Elikagai erregulatuak

- **Afektibitatea eta zaintza:** erakundeen barruan, pertsonen arteko harremanen kalitateari lehentasuna ematea.
- **Lotura "ezpuruetarako" eta lotura gertagaitzarako gu-
neak:** dibertsitatea eta ikuspegi desberdinak dituzten eragileek ideiak gurutzatzea sustatzen duten topaketak gerta daitezten erraztea.

2. Errezeta: Bulego Tekniko Partekatua (BTP)

Taldeak asmatutako proposamena Bulego Tekniko Partekatua (BTP) sortzean datza. Bulego hori gizarte- eta kultura-sektoreko hainbat erakunde bilduko dituen lankidetzagunea izango da, guztion balio eta premietan eta azpiegitura bateratuan oinarritua.

Ekimenaren helburuak dira baliabideak optimizatzea, eragiketa-kostuak murriztea eta funtsak lortzeko gaitasuna handitzea, eta, horretarako, lan-dinamika kooperatibo eta jasangarria sustatzen da.

BTParen helburuak

Helburu nagusia da **fundraising partekatuko eta elkarlan estrategiko eta asmoaniztuneko ingurune bat sortzea**, diziplina anitzeko eragileek taldeak, **ezagutzak eta harreman-sareak partekatu ahal izan ditzaten**.

Eredu horrek lehiarik gabeko gune bat sustatzen du, **diziplina-aniztasuna eta belaunaldien arteko harremana bultzatzen dituen, eta lankidetzan oinarritutako ikuspegi sistemiko baterantz jotzea proposatzen du**.

Alde horretatik, oso garrantzitsua da elkar sinesteko giro bat sortzea, **promesak eta baliabideak truke anitzeko sistema baten bidez kolektibizatzea, konfiantzan eta elkarrekotasunean oinarrituta**. Asmoa da lankidetzaren zuzen eta berehalakorik ez badago ere erakundeek elkarri laguntza eskaini ahal izatea, **ideia, kontaktu eta ezagutzen bidez**.

BTPa aukera berritzailea da gizarte- eta kultura-sektorearentzat, parte hartzen duten erakundeei aukera ematen die **baliabideak optimizat-**

zako ez ezik, baita elkarri laguntzeko eta elkarrekin hazteko gune bat sortzeko ere. **Sektoreen arteko lankidetzaren, konfiantza eta afektibitate**

Inspirazioak eta jardunbide egokiak

BTPak eredu arrakastatsuak ditu inspirazio-iturri, hala nola **fundazio komunitarioak**, zeinak baliabideak mobilizatzea eta lankidetzaren sendoa ezartzeko duten gaitasunagatik nabarmentzen baitira. Erakundeek aldizka elkar bisitatzea komeni da, **beren errealitateak hobeto ulertzeko eta lotura pertsonalak indartzeko**.

Horrez gain, **Europako ingurune komunitario eta finantzaketa-inguruneetan erakundeek elkarlanean aritzeko duten gaitasunaren garrantzia azpimarratu nahi dugu**, lehendik dauden sareetan oinarrituz; **EAPN (European Anti-Poverty Network)**, adibidez. Horri esker, **Europako partzuergoen banku bat** sortu ahal izango litzateke, eta horrek **Europako Batasunak** finantzatutako proiektuetan elkarrekin parte hartzea erraztuko luke.

Jardunbide zehatzen adibideak


Tupperware ereduak: Eredu honek, topaketa informaletan oinarriturik, proiektuen gertuko **jendea finantzaketa kolektiboko zirkuluetan biltzea du helburu**.

Gertutasuna eta ezarritako harreman pertsonalak oinarritutako hartuta, **lotura berriak eta konfiantzazko guneak sortu eta burokrrazia arintzen da**.

Horrela, **BTParen azpiegitura baliabide sozial, kultural eta ekonomikoa sortzera bideratzen da**, eta **fundraising lanak eta justifikazio administratiboak indarra galtzen dute**.

Emakumeen dominoa: Eredu horrek nortasun partekatuan oinarritutako eragin- eta ezagutza-zirkulu espezifikoak sortzea proposatzen du (*emakumeak, adinduak, zuzendaritza nagusiak, etab.*), jarduera ludikoen inguruan (dominoa, esaterako).

Zirkulu horiek lankidetzaren eta ideia-trukea sustatzen dituzte ingurune informaletan, eta **taldearen kohezioa indartzen dute**.



change



06 AfterCHANGE

Etxera hotz-hotzean ez joateko, produkzio-taldeko zenbait kidek dena biltzen zuten bitartean, bertaratutako batzuek berriketan jarraitu genuen terrazan, zerbait hartuz, eta bide batez, goizeko kafean geratu ziren pintxoak jan genituen.

Etxera afalduta itzultzea, soberan geratutakoa banatzea eta, era horretan, zaborra gutxitzea, iraunkortasunean eta baliabideen aprobetxamenduan pentsatzeko modu bat ere bada.

Eta orain bai, amaitu da KARRASKANen Berrikuntza eta Kulturaren X. Jardunaldia.

Pozik itzuli gara etxera.

- Uste dugu CHANGE beharrezkoa dela eta zentzua duela.
- Uste dugu jendeak gozatu duela (haien aurpegietan ikusi dugu, eta baita balorazio-galdekaketan ere).

Beraz... CHANGErekin aurrera egingo dugu!

change



ERANSKINA: Irekitzen duten testuekin ixtea

BINGOko elkarrizketan parte hartu zuten lau lagunei testutxo bana bidaltzeko eskatu genien, jardunaldiko esperientzia oinarritzat hartuta CHANGEren jarrera eta prozesua aberasten jarraitu ahal izateko.

Eduki eta formatu oso desberdineko testuak dira. Hori zen kontua, dibertsifikatzea, bideak irekitzea.

Hemen dituzue, txostena ixteko.



Sugar txiki bat, sua, zeru izartsua

Greta Frankenfild

CHANGE: Egin jokia! Berrikuntza eta Kulturari buruzko X. jardunaldian zer gertatu zen galdetuko balidate, ez nuke ondo jakingo zer erantzun. Ez da erraza izaten gorputzean gertatzen zaizkigun esperientziak beste batzuei helaraztea. Pentsamendua irmoki zeharkatzen duten topagune horietako bat izan zen, **baina ez hori bakarrik: nire emozio eta sentsazioetan ere utzi zuen arrastoa.**

Gizarte-erakundeak esaten **dudanean, talde, elkarte, kooperatiba, fundazio, enpresa eta ekintzailtza ugari ditut buruan, tamaina, forma, helburu eta ibilbide ezberdinekoak.** Horiek osatzen ditugun pertsonengan ere pentsatzen dut, nortasun, baldintza eta **inguruabar are anitza** goak baititugu.

Erakunde gisa diruarekin dugun harremana konpontzea "zor" bat da (hitz-joko aproposa, izan ere). Horretan ari gara, baina asko falta da gaia amaitzeko. Ez dugu baliabide nahikorik gure helburuak betetzeko, ez epe luzerako plangintzarik egiteko, ezta bidaia duin eta eroso egiteko ere; eta are garrantzitsuagoa iruditzen zaidan kontu bat: hori guztia utopia iruditzen zaigu.

Eta baliteke, hein batean, hori nekez lortzea. **Bizi garen mundua bidegabea da: aberastasuna esku gutxi batzuetan pilatzen da, espoliozio-, zapalkuntza- eta heriotza-estrategia ahaltzuek babestuta.** Indibidualismoaren, berehalakotasunaren eta eskasiaren kultura bizi gara. **Beldurrez bizi gara.**

Iluntasun horretan, erakundeak haztamuka, estresatuta eta, gehiegitan, bakarrik mugitzen gara. Gainera, pertsona eta erakunde bakoitzak bere itzalak ditu.

Aski izango ez genuelako, geneukana amaituko zelako edo kendu egingo zigutelako eta ezertxo ere gabe geldituko ginelako beldur izaten irakatsi ziguten, eta horixe ikasi genuen. Gaia aztertzeke modu bat da hori, baina badira beste batzuk. Eta hori zen CHANGE jardunaldiaren asmoa: **ikuspuntua ere aldatzea; errealitateari yogajarrera alderantzikatua eginez bezala begiratzea; energia, arreta eta ikuspegia hor bilduz.**

Jardunaldian proposatutako dinamikek begi-niniak lasaitzera eta ustezko iluntasun horretan ñabardurak, zirrikituak eta dirdirak aurkitzera gonbidatu gintuzten, galderarekin, susmoarekin eta intuizioarekin berriro konektatzera.

Ilunpetan, elkarren siluetak ezagutu eta gure sugar txiki pertsonalak batu genituen. Denon artean sortutako suak argia eta beroa eman zizkigun guztioi. Eta, su goxoaren inguruan bezala, istorioak kontatu genizkion elkarri. Are gehiago, su haren inguruan istorioak sortu genituen.

Suaren inguruan elkar ezagutu genuen finantzaketa eskaintzen eta eskatzen dugun eragileak, eta baita bitartekoak ere. Zer egiten dugun kontatu genion elkarri, eta geure buruari galdetu genion gehiago elkartuko bagina zer egin genezakeen, gure egoera, premia eta mugak kontuan hartuta. Irudimena askatu genuen gutxi aztertzen diren harreman horiek ohikoago bihurtzeko, baina baita bidezkoago ere, konfiantza, gardentasun eta elkarrekikotasun handiagokoak.

Antolatzaileek hainbat tresna eta elikagai jarri zituzten gure eskura, eta gonbidatuok bat egin genuen ekarri-festa hartan (nik patatak ekarri ditut, nik sagarrak ekarri ditut, nik ogia ekarri dut...).

Goizean nahiko lan egin ondoren, gure errezeta prestatu genuen su motelean. Anfitrionien premisa errezeta bat sortzea zen, osagai hauek zerrendatuz: energetikoak (prekarizazioaren kontrakoak, prozedurazkoak, estrukturalak), formatzaileak (hazten, garatzen eta mantentzen laguntzen dutenak) eta erregulatzaileak (zeharkakoak eta beste prozesu batzuen bideratzaileak).

Beste bost lagunekin egon nintzen mahaian, eta enpanada bat prestatu genuen (ikusit fitxa eta osagaien zerrenda 4. MAHAIAREN kontaktuz). Hasteko, ore ama prestatu genuen, osagai hauekin: talde prestatua, lan-baldintza onekin; zeregin argi eta moldagarriak; denbora eta baliabideak maximizatzeko modua; eta epe luzerako finantzaketa, esperimintatzeko eta huts egiteko marjinekin.

Masa hotzetan beratzen uzten genuen bitartean, betegarri formatzailea prestatu genuen, honako hauekin: baliabide dibertsifikatu mutualizatuak, ohitura partekatutako, ikasteko komunitateak eta errotze-, defentsa- eta erresistentzia-sistemak. Orea moldearen gainazal osoan kontu handiz zabaldu, bete eta ertza polit-polit azpildu genuen. Gero, osagai erregulatzaileak gehitu genituen. **Ondoren, botere-harremanak esplizituki kudeatzeko labean sartu genuen, 220 gradutan (horrek intentsitatea eta sakontasuna eskatzen ditu),** eta gainera jarri genizkion. Gainera enpanada oso-osorik estali behar dute, txokorik ahaztu gabe: gardentasuna eta argitasuna, balioen eta ezagutzaren transferentzia, autonomiaren eta interdependentziaren arteko oreka, edo prozesu afektiboak, matasunarekin eta mugekin.

Gastronomiako eta nutrizioko profesionalen batek hau irakurtzen badu, zur eta lur geratuko da seguruenik, prozesua ez delako batere koherentea. Uler gaitzala, arren. Distantziak alde batera utzita, gure sugarrak harmonizatzeko tresna gisa balio izan zigun metaforak. **Eskerrik asko, lagunok!**

Gizarte-erakundeak ilusioari eta itxaropenari esker bizi gara, baina ez horrekin bakarrik. Denek ogia izan dezaten nahi eta behar dugu. Utopiek bultzatzen gaituzte, baina ondo baino hobeto dakigu zein errealitatean bizi garen.

Sutondoan seguru, atseginez eta lasai geratzea atsegin izango genukeen **(mundu guztiak bezala),** baina gure eguneroko zereginetara bueltatu ginen, betaurrekoak jartzera, kontuak berrirakurtzera eta balantzeak ixtera..

Paragrafo batzuk gorago esan bezala, prozesua xehetasunez azaltzeko gai ez naizen arren, **CHANGE** esperientziaren ondoren ideia, emozio eta sentsazioez gainezka sentitzen naiz. Orain, elikagai horiek nire odolean eta organoetan barrena dabilta, eta nire taldekideekin partekatu ditzaket. Behar ditugu, badakigu existitzen direla eta gure artean eta beste batzuekin elkartzen garenean zehaztu ditzakegula.

Izan ere, errealitateak estutzen gaituenean, begiak altxatu ditzakegu, eta ikusi elkar ezagutu genuenean sortu genituen sugar txiki horiek zeru izartsu bat eratzen dutela, eta komunitatea garelako gogoratu.



Nahi dugun ekonomia pentsatzea, esatea eta egitea. Ezin dugu ez ikusiarena egin.

Javier Moreno Ibarra

Pigem-ek "Krisi ona eta errealtate adimenduna" **"Ianean dioen bezala, gaur egun munduan egiten diren diru-transakzio gehienak ez dagozko ekonomia errealarri, baizik eta mundu abstraktueta barrena dabilen eta epe laburreko etekin gose den diruari; eta mundu horiek benetako ondasunetatik eta irizpide etiko, sozial eta ekologikoetatik bereizita daude"**. Espekulazioa oinarritzat hartuta sortutako ekonomia hori ez dago pertsonen zerbitzura; aitzitik, dirua artifizialki biderkatze-ko leku bihurtzen da.

Gailendu den ekonomia-mota horrek pertsonak ekonomiaren erdigunetik kanpo uzten ditu. Horiek horrela, hainbat pertsona eta erakunde batu gara ekonomia aldatzeko sareekin lankidetzan aritzeko, finantzaren aldetik beste ekonomia-mota bat bultzatu ahal izateko, irizpide demokratiko, solidario eta gardenak aplikatzea ahalbidetuko duena, bizi-baldintzak hobetzea eta gizarte bidezkoago batera bideratutako ekoizpen-proiektuetan inbertitzea lortzeko. Justizia hori sortzeko ezinbestekoa da finantza-eremua **"pertsonena, pertsonentzat eta pertsonekin"** izatea. Guretzat, beraz, ekonomia ez da gizabanako utilitaristez osaturiko ekintza-gune bat, aitzitik: askotariko pertsona, familia, komunitate eta kolektiboek osaturiko gune bat da; horiek guztiek erabilgarritasun materialeko transakzioak egiten dituzte, baina elkartasun- eta lankidetzaren balio eta -prozedura partekatuak baliatuz.

INBERTSIO JASANGARRIAK FINANTZATZEA.

Finantzatutako proiektuek ingurumen- eta gizarte-irizpideak eta gobernu korporatiboko irizpideak (IGG) erabili behar dituzte kudeaketari buruzko erabakiak hartzen dituztenean. Horrek esan nahi du finantza-aktiboak aukeratu eta kudeatzean kontuan hartu behar direla ingurumen- eta gizarte-faktoreak eta gobernu korporatiboko faktoreak, sustatzen diren inbertsioak gizarte eta ingurumen aldetik arduratsuak izan daitezela eta dauzkagun zibilizazio-erronkei loturiko desafio eta aukerei aurre egiten lagun diezaguten.

FINANTZA-INKLUSIOA.

Finantza horien asmoa da finantza-zerbitzuetara sarbide mugatua duten proiektu, kolektibo eta erakunde finantza-inklusioa handitzea.

FINANTZA-SUBIRANOTASUNA.

Aurrerapausoak ematea funts mutualizatuen kudeaketan parte hartzeko, IGG informazioaren zabaluntza sustatzeko, akziodunen batzarretan parte hartzeko, enprekin elkarrizketan aritzeko jasangarritasunaren inguruko beren jardunaren inguruan, eta aktiboak kudeatzeko jardunbide hobeak sustatzeko. Erabakiak hartzerakoan aktiboki parte hartzeak interes-talde guztien eta esku hartzen duten pertsonen premia eta ikuspegiak kontuan hartzea ziurtatzen du, eta horrek prozesuak inklusiboagoak eta jasangarriagoak izan daitezela eragin dezake. Gainera, kontrol kolaboratiboak gizarte-koherentsia indartu eta pertsonak ahaldundu ditzake, autonomia eta beren etorkizunean eragiteko gaitasun gehiago izan ditzaten. Abiapuntua ez da hau: **"ni naiz, nik ahal dut, nik badaukat, eta, beraz, nik zuri ematen dizut, ez zarelako, ezin duzulako, ez daukazulako. Beste hau baizik: "gu gara, guk ahal dugu eta guk daukagu, eta, beraz, elkar laguntzen diogu"**. Era horretan, laguntza mutualizatuko eta finantza-subiranotasuneko jardunbideak finkatzen dira.

Helburua da gizarte eta ekonomia eraldatzeko engaiatzea, ekonomia- eta finantza-harremanetan indarke-riarik egon ez dadin. Eta hori eragiteko, hiru oinarri behar ditugu:

TEKNOLOGIA: adierazleak, ziurtariak, txostenak...

BALIO KOMUNITARIOA: Ingurumeneko elementuak (Lurra zaintzea), gizarte-elementuak (elkartasun ekonomikoa) eta gobernantzako elementuak (demokrazia ekonomikoa), eta horiek berriz interpretatzea, elkarrekotasunaren eta birbanaketaren aldetik.

BALIO-SAREAK: asmoan engaiatutako interes-taldeen artean aliantza estrategikoak sortzea.

Halaber, beharrezkoa da onartzea ez dugula errealtate ekonomiko bakarrera egokitu beharrik, beste ekonomia batzuk ere posible direla. Izan ere, ekoizpen-, banaketa-, zirkulazio- eta kontsumo-jarduerak instituzionalizatzeko moduak nolakoak, gaitasunak eta baliabideak mobilizatu, banatu eta antolatze eta biztanle guztien beharrezko eta nahi legitimoak konpontzeko gizartearen balio eta jardunbideak nolakoak, ekonomia halakoak izango dira.

change


Zibilizazio-krisiaren une historiko honetan, askotariko ikuspegiak uz-tartu behar dira, bestelako irtenbide ekonomiko eta sozialak esploratzeko. Orain nagusi direnak gero eta gabezia gehiago dituzte. Era berean, ez dituzte konpontzen eurek sortu dituzten eta, gainera, argi eta garbi aitortzen dituzten aberastasunaren birbanaketa-arazoak; izan ere, merkataritza-kontabilitateko sistemetan aipatzen dute ez dituztela aintzat hartzen merkatu-akatsak eta kanpo-eragin negatiboak (alde batera utzi dituzte hamarkadatan, eraginik izango ez balute bezala, edo zuzentzeko ardura beste gizarte-eragile batzuei eman diete).

Baina zerbaiti begiak ixteak ez du esan nahi existitzeari eta jarduteari uzten dionik. [Olivier De Schutter-ek, muturreko pobrezia eta giza eskubideei buruzko Nazio Batuen Errelatore Bereziak, argi eta garbi dio bere azken txostenean](#) (2024an argitaratu da): **hazkunde ekonomikoak gizarte-bazterkeria areagotu du, eta ingurumena ere asko kaltetu du** (merkataritzako kontabilitateak ez ditu kontuan hartzen merkatu-akats eta kanpo-eragin negatibo horiek). Hori oinarritzat hartuta, urrunago doa eta mozkinak maximizatzean oinarritutako ekonomiatik **GIZA ESKUBIDEEN EKONOMIARA** pasatzearen alde egiten du, hazkunde ekonomikoari ikuspegi inklusiboago, bidezkoago eta orekatuagoa aplikatuz, garapen jasangarria, pobrezia errotik kentzea eta herri guztien zoriontasuna eta ongizatea bultzatzeko.

Ezin dugu ez ikusiarena egin. Bizitzan baino diruan gehiago pentsatzen dutenen eskutik egiten ari garenaren eta zuzentasunez jokatzearen arteko arrakala itxi behar dugu. **Horregatik, nahi dugun ekonomia pentsatzera, esatera eta egitera gonbidatzen zaitugu.**

Funtsezkoa da, lehenik eta behin, gure kontzientzia eta adimena ez lokartzea. Ondoren, pentsatzen duguna ondo esan behar dugu, arma bat bageneuka bezala hitz egina-razten digun beldurra astinduz. Eta, azkenik, gure kontzientziak eta adimenak agintzen digutena egin behar dugu, elkarri laguntzeko, erabakiak adosteko libreak eta parekoak garelako oinarritzat hartuta.

Horrelaxe elikatu nahi dugu: pentsatzeko askatasuna, esateko erantzukizuna, jarduteko konpromisoa.





Finantza-arduradun bati gutun irekia...

Kike Labián

Kafea eta Wi-Fi artean, 12, ezkerreko hirugarren mahaiaren ondoan, Bilbo.
transforma@cultura.com

Zenbakiak baino eraginari garrantzia ematen dionari.

Data: Aldaketaz hitz egiteko egunik aproposena.

[sartu kultur erakundea hemen]eko finantza-arduradun hori:

Haietako bat naiz. Biltzar ugarian kultura-bitartekaritza, -eskubide eta -demokraziaren in-guruko proiektuetarako erakundeen laguntzaren premiaz hitz egiten duen pertsona horie-tako bat, "instituzio" hitza erabiltzen duena erakundea desinstituzionalizatzea eskatzeko, instituzioa gaininstituzionalizatzen duen bitartean "instituzioa [sartu hemen orokortasu-nen bat] da" esaten duen bitartean, konstruktua hori pertsonen definituko ez balute bezala, nork bere esanahiarekin. Zer axola dio nor zaren, lan egiten duzun lekuan lan egiten baduzu.

Change bezalako ekitaldiak funtsezko premisa batean oinarritzen dira: baliabideak behar ditugu. Zehazki, eta arintzeko, dirua behar dugu. Premisa berriegia ez dirudien arren, ger-takari batzuk direla eta ohi baino premiazkoagoa da. Mezenasgoaren filantropiaren eta di-rulaguntza tradizionaren bidezko finantzaketa publikoaren moduko ereduak agortzen hasi dira, epe laburrerako ikuspegia dutenez eraldaketa sakonak eragiteko gaitasunik ez dute-lako, eta sektore osoa aukera jasangarriagoak asmatzeko altxatu da (hitz horrek eragiten dituen zalantza guztiekin).

Pixka bat lasaitzearren, ez dut uste beste testuinguru batzuetan gertatu ez den zerbait ger-tatzen ari denik eta, zorionez, urrats batzuk iragar ditzakegu. Badira bizpahiru urte finant-zatzaile-finantzatu alderdiek beren iruditeria berriak, beren kontakizun berriak prestatu di-tuztela. Ekitaldi berrietan, orain arte eredu zaharren mende zeuden proiektuak bultzatzen ditugunok gure beldurrei buruz hitz egiten dugu, beste aldeari zer eskatzen diogun eztabai-datzen dugu (konfiantzan oinarritutako finantziarioa, burokrazia gutxiago, epe luzera antolatzea...); eta laguntzeko baliabideak dituzten pertsonen gauza bera egiten dute (eragina neurtzea, inbertsioa itzultzea, elkarlan gehiago...). Hori ulergarria da.

Zeure buruari galdetuko diozu hori guztia zergatik kontatzen dizudan. Finantzaketa kultu-ralaren West Side Story hau antzeztan dugunoi bekaina tente begira zaude, sinesgogor, le-hen planoan Windows XP pantaila bat daukazun bitartean, non hirurogeita hamalau fitxako Excel bat dagoen, ekitaldia gora, ekitaldia behera, azkenean berde egon behar duena. Bada, begira, kontatzen dizut zure beharra dugula uste dudalako.

Gune komun bat behar dugu, non "finantzaketa" hitzaren inguruan lan egiten dugun guztiok onartuko baitugun errealismoa ez dagoela hain gaizki. Horiek horrela, gaizki hartuko geni-tuzkeen esaldien zerrenda bat egin dugu, esatea bururatzen bazaizkizu ere:

- "Bitartekaritza kulturalerako zure programak itxura ona du, baina hainbesteko aurrekon-tua jartzen badiot, batere itzulkinik gabe, sarrera erosiz museo honetako ekonomiari eusten dion turista horri balioa kenduko diot, nahiz eta jakin denbora-pasa etorriko dela gure erakusketa iraunkorra ikustera, bazkalordua iritsi zain, gero paella jan eta sangria edateko".
- "Pozten nau gure erakundea kultura-ondasun eztabaiaezina dela uste izateak, baina babesleak galdetu dit zergatik jarraitu beharko lukeen gure orkestra finantzatzen, Ma-dCool-a beharrean, nagusiak betetzea lortzen ez dugun posizionamendu-PANak eskatzen dizkiola, eta, gainera, bere alaba Dua Liparen jarraitzaile sutsua dela".
- "Ulertzen dut zer esan nahi duzun. Marketineko zuzendaria zara, ez EGEkoa edo funda-zio batekoa, baina hau arte-hezkuntzako elkarte bat da, ez komunikazio-agentzia bat; beraz, ez iezaezu gauza bera eskatu (hala ere, normala da pasta-betaurrekoak ikusi on-doren nahastu izana)".

Badakit esaldi horiek ezagutzen zenituela, zure terapeutari esaten dizkiozulako osti-ralero, ziurrenik, baina gure elkarriketek tentsio horiek nabigatu behar dituzte, eta onartu behar dugu sistema bat beti izango dela interdependentea, maitasunean bai-no gehiago oinarritua boterean. Izan ere, oraindik ez dut aurkitu kultur sektore osoan inor bere eguneroko jardunean borondate onik ez duenik (borondatea adierazteko aurrekontu handiago edo txikiagoarekin).

Nahiago nuke fundazioetako zuzendari guztiek askatasunez aukeratu ahal izango ba-lituzte beren finantzaketa-lerroak, fundazio horiek mantentzen dituzten enpresen merkatu-zenbakien mende egon gabe; nahiago nuke administrazio publikoen laguntzei burokrazia eragozpenik ez jartzea; nahiago nuke proiektu artistiko-sozial txikiak baliabideak erakartzeko eragin-zenbaki mamitsuak eskaini ahal izango balituzte, kul-tura-industriako korporazio handiek bezala.

"Nahiago nuke" horietan eraikuntza kolektiboko lan bat dago, eta engaiatutako ahots guztiak behar ditugu lan hori gauzatzeko, ez gu konbentzitzeko, baizik eta entzuteko. Hala, hainbat elkarrizketa konplexu ebazten hasiko gara, adibidez: aurrekontuen muga errealitate bat da; beti ez da "finantzaketa gehiago" egongo eta, agian, "finantzaketaren birbanaketaz" hitz egiten hasi beharko genuke; eta, bide horretan, ezin dugu erakun-deei apustu egin dezaten eskatu, apustu horien arriskuak murrizten lagundu gabe.

Change-n gauza eder bat aurkitu nuen: maitasunaren alde mugitzen den pertsona-tal-de bat, kulturaren bidez eraldatzen dituen errealitateek eragin diezaien uzten duena. Eta hori guztia prekaritate handiarekin, estu eta larri; ez dut egoera zein den azal-duko, oraintxe ez duelako merezi. Ekitalditik atera nintzenean, lagun batekin hitz egin nuen eta esan nion: "hemen izugarriko ahalmen eraldatzailea dago, eta finantzatzeko gaitasuna duten enpresak elkarrizketa horretara gehitzea gustatuko litzaidake, baina elkar ulertuko ez dutelako beldur naiz".

Horregatik idazten dizut, finantza-zuzendari hori, badakidalako gurekin lan egitea ez dela erraza. Elkar zaintzeaz, elkar entzuteaz eta parte hartzeaz hitz egitea atsegin dugu, baina izugarri kostatzen zaigu zu zaintzea, zu entzutea eta parte har dezazun lortzea. Hurrengo Change-n, edo beste edozein ekitalditan, ea etortzera animatzen zaren, entzutea gustatuko ez zaizkigun gauzak esatera, beharbada, agian entzutea gus-tatzen ez zaizkizun gauzak entzutea, kulturaren ekonomiaren etorkizunari buruzko benetako elkarrizketa bat sortzera, gure sektorearen betiko kontraesanak bere gain hartuko dituen.

Izan ere, bakarrik laster iritsiko gara, elkarrekin urrutira iritsiko gara, baina, baliabi-deak izanez gero, hilabete amaierara fakturak ordaindu ahal izanez iritsiko gara, eta hori da, azkenean, aurrera jarraitzeko behar duguna.

Adeitasunez.



Kultura-sektorearen eta gizarte-berrikuntzaren arteko harremanak eta finantzaketa-sistema hobetzeko aukera berriak

Itziar Rubio Barrera

Bizi garen mundua eta errealitatea interdependentek dira. Gure bizitza pertsonalean zein profesionalean, hainbat arrazoiengan oinarritutako harremanak sustatzea aukeratzen dugu, baina horiek guztiek, batez ere helden goazen heinean, izendatzaile komun bat dute: **bai pertsona, bai profesional gisa, harreman elikagarri, osasungarri eta iraunkorrak eraikitzea aukeratzen dugu.** Zer edo zer gehitzen diguten harremanak: ezagutza eta estimua ematen dizkigutenak; hazten, ondo sentitzen, harago joan ahal izaten laguntzen digutenak...

Bat garenez eta dena loturik dagoenez, eraldaketa- zein aldaketa-prozesuak sustatzeko gure lan desafiatazaleaz gozatzen jarraitu ahal izateko zein estrategia eta harreman eraiki behar ditugun hausnartzen dugunean, edozein sektoreko, baina batez ere artearen, kulturaren, berrikuntzaren eta gizarte-ereldaketa-**ren sektoreko proiektuen finantzaketa- ren inguruko harremanek, hiru oinarri izan behar dituztela uste dut: lotura, konfiantza eta afektibitatea.**

LOTURA.

Psikologiak irakasten digun bezala, gizakiok gure premiak betetzen dituzten pertsona, erakunde edo instituzioekin sortzen ditugu loturak. Askotan, gure erakunde, proiektu eta ekimeneen finantzaketaz hitz egiten dugunean, **alde hori bazter uzteko joera izaten dugu, eta harremanak ikuspegi instrumentaletik lantzen ditugu.** Normalean, gure agendan toki gehiago ematen diegu plangintza egiteko zer emaitza eta proiektzio dauzkagun aztertze urteko garaia helden denean. Dinamika hori gertatzen da bai finantzatzen duenaren ikuspegitik, bai finantzaketa jasotzen duen erakunde eta/edo proiektuaren ikuspegitik. Horregatik, **garrantzitsua da hausnartze gune bat edukitzea eta loturak sortzeko konpromisoa hartzea,** loturak sortu eta helburuak adostu eta betetze aldera. Lotura horien eraikuntza zaindu eta aldi-aldi artatu behar dugun prozesu gisa ulertu behar dugu.

KONFIANTZA.

Munduan nahasmendu handia dago eta, gaur egun, **balore-merkatuan konfiantza da aktiborik prezia-tuena, lehen petrolioaren bezala.** Pertsona, profesional, erakunde eta enpresa guztiek konfiantza baloratzen dugu eta behar dugu. **Konfiantza sortzeak honekin du zerikusia: elkarrekin landu nahi ditugun ikuspegi eta balioak partekatzearekin, eta bi alderdiek hartuko ditugun erantzukizunak oso argi ezartzearekin. **Zerikusia du elkarrekin ikastearekin eta komunikazioa irekia, argia eta zintzoa izan dadin erraztuko duten gune seguruak sortzearekin, besteak beste.****

AFEKTIBITATEA.

Gure bizitzan egiten dugun edozerk eragin **positibo handiagoa izango du giza dimentsioa eta dimentsio emozionala txertatzen baditugu.** Sortu dugun gizarte-ereldaketaz zein eraldaketa hori gauzatzeko daukagun finantzaketa-premia jar-**du, lehentasunak gizakion, maitasunaren eta elkar zaintzearen kulturak izan behar du.**

Horretarako, eta ados bagaude oinarri horiek garrantzitsuak direla gure proiektu eta erakundearen finantzaketari lotutako harremanak kudeatzeko orduan, **adierazle kontu emateaz gain** (oso garrantzitsua da, baina ez nahikoa), harremanen arloak duen balioa prozesu osoan txertatu ahal izan behar dugu, **garrantzitsua baita.**

Kultura- eta sormen-industriek (KSI) eta gizarte-berrikuntzaren sektoreak egiten duten lan baliotsuaren bidez gizarte-egiten zaizkion ekarpenez ari garenean, eta aldaketa sustatzeko proiektuak sortzeaz hitz egiten dugunean, ulertu behar dugu aldaketa eragiteko lan egiteak honako hauekin duela zerikusia:

Aldaketak berekin dakarren giza, gizarte- eta erakunde-erresistentzia naturalari modu estrategikoan aurre egiteko gai izatea.

Prozesu osoan (idea sortzen denetik proiektua amaitzen den arte) ikuspegi sistemiko eta epe luzeak izan dezagun ziurtatzea; horrek esan nahi du ulertu behar dugula ezinbestekoa dela zenbait urtetarako proiektuak finantzatzea onartzea.

Aldaketaren aurrean egokitzeko dugun gaitasuna garatzen jarraitzea eta malguak izatea, gure zeregina edozein dela. Proiektua ezartzeko prozesuak aurrera egin ahala, premiak aldatu egingo dira, seguru asko, errealitatea berez konplexua baita.

Prozesuaren kultura defendatzea, produktuan ardaztu beharrean.

Gaur egun finantzaketa eskuratzeko dauden ohiko sistemak sinplifikatzeko, teknologiak eskaini diezazkigukeen onurak aprobetxatzea (deialdiak, kontuak ematea...).

Arriskuarekin dugun harremana berrikustea, eta ikustea ea gai garen harreman hori hobetzeko eta beldurra galtzeko (eragile finantzatzaileak, bideratzaileak edo finantzaketa-hartzaileak izan). Arriskuarekin harreman berriak sortzen goazen heinean, finantzatzeko modu berriak agertzen dira. Inpaktu-inbertsioaren bitartez esperientzia positiboak izaten ari gara gure sektorean, bai estatu-n, Nina Carasso Fundazioaren Tii-na programari esker, bai nazioartean, Figurative UKrekin, besteak beste.****

Euskal Herriko edo Espainiako edozein kultura-, sormen- edo gizarte-eragileri galdetuz gero, erantzun hau jasoko dugu: **badakigu finantzatzaileei (publiko zein pribatuei) balio-proposamen sendo eta erakar-garriak egin behar dizkiegula, abian jarri ondoren ebaluatu eta tratatzeko modukoak. Dena den, erabakigarria da, halaber, eragile finantzatzaileek ulertzea gure proiektu-motak, gizarte-eragin positibo eta beharrezkoa dutela dakigun arren, ezin direla beti zabalduta, eta gure emaitza guztiak ezin direla logika berberen arabera neurtu, maiz sortzen duten eragina ukiezina baita.**



Horretarako, eragile finantzazileek aurrerapauso bat eman behar dute, eta aurrera egiten jarraitu behar dute proiektuak aztertu, lagundu eta finantzatzeko orduan pentsamolde ekintzaileagoa sustatuko duen kultura-aldaketa eragiteko. Baliteke eragile finantzazile gehienentzat, batez ere publikoentzat, oraindik hain jarrera organikoa ez izatea, baina, Europako beste herrialde anglosaxoi eta eskandinaviarretan eta, bereziki, Latinoamerikan nola ari diren begiratzen badugu (KSI sektoreari egokitutako finantza-mekanismo eta -tresnak probatzen ari dira, ekonomia sortzailea sustatzeko), elkarrekin finantzaketa-sistema inklusibo, eskuragarri eta jasangarriago bat eratzea lortuko dugu. Gure zeregina edozein dela ere, konpromisoa lantzea behar dugu, beste leku batzuetan arrakastaz egiten ari diren esperientzia positiboetatik ikasteko aukera emanez.

Era berean, berritzeko pentsamoldea eta kultura izateak berebiziko garrantzia duela uste dut. Gure konfort-zonatik ateratzeko prest egoteak, gure aurreiritziak askatzeak eta ezezagun dugunari bide emateko ausartak izateak, bide berriak aurkitzen eta kulturaren, sormenaren eta gizarte-berrikuntzaren finantzaketari lotutako eragileen arteko harremanak hobetzeko lehiak zabaltzen lagunduko digu, seguru.

Gogoeta horiek gauzatu daitezkeela eta aldatzea posible dela erakusteko asmoz, nire bizitzan oso garrantzitsua izan zen esperientzia bat azaldu nahi dut. Cuerda Firme (2014-2017) proiektua izan zen, programa berritzaile bat, Argentina, Txile eta Perun gizarteak baztertuta zeuden milaka gazteren enplegarritasuna hobetzeko diseinatua. Faktore berritzaile bat zuen: enplegarritasuna hobetzeko giltza gazteek gaitasun bigunak (bizitzarako abilezia ere esaten zaie) lantzeko eskualde-metodologia berri bat zen. Metodologia horrek hiru urteko epean 1.500 gazteren enplegarritasun jasangarria ziurtatu behar zuen, eta gaitasun horiek garatzeko tresna gizarte-zirkua zen. Banku Interamerikarreko Inbertsio Funtsu Multilateralak (BID-FOMIN) hartu zuen bere konfort-zonatik irteteko eta arrisku handiko proiektu batean inbertitzeko erabakia. Lehen aldia zen era horretako erakunde batek gizarte-zirkuan inbertitzen zuela, eskualdeko arazo estruktural bati irtenbide berritzaile bat emateko tresna pedagogiko gisa.

Horretarako, BID-FOMINEk eskualdean eredu ziren hiru gizarte-zirku deitu zituen, La Tarumba (Peru), Circo del Mundo (Txile) eta Circo Social del Sur (Argentina), programa gauzatzeko, eta baita Cirque du Soleil ere (bazkide estrategiko gisa), bi urte iraun zuen hausnarketa-prozesu bati ekiteko.

Denbora horretan elkarriketan aritu ondoren, partzuergoak oztopo eta aurreiritzi asko gainditu zituen, eta alderdi guztiak programa gauzatzera ausartu ziren, funtzionatuko zuen ondo jakin gabe. Eta, orduan, programaren eskualde-koordinatzaile izateko gonbit egin zidaten, eta nire ibilbide profesionaleko esperientziarik zirrargarrienetako bat bizitzeko zortea izan nuen.

Proiektuaren hasierako lehen hilabeteetan, hainbat galdera ibili nituen buruan: Nola jarriko gara ados ikuspegi, izaera, kultura eta itxaropen hain desberdinak dituzten eragileak? Nola diseinatuko dugu elkarrekin hain denbora gutxian askotariko milaka gaztek beren gaitasunak lantzeko metodologia berri bat? Nola lortuko dugu gure hizkuntzek, hain ezberdinak izanik, elkar ulertu ahal izatea? Nola lortuko dugu helburu eta adierazle guztiak arrakastaz betetzea?

Erraza da erantzuten: lau urtez gogor lanean aritu ondoren eta parte hartu zuten pertsona guztiei esker, programak izugarritzko arrakasta izan zuen. Taldekide guzti-guztiok (zuzendariak, talde pedagogikoa, laguntzaileak, erabiltzaileak, hornitzaileak...), edozein zeregin edo kargu genuela ere, eginahalak egin genituen helburua lortzeko, inoiz amore eman gabe.

Eta hori lortzeko, erraza izan ez bazen ere, esperientzia arrakastatsu hartan parte hartu genuen guztion artean gizatasuna, enpatia, pazientzia, profesionaltasuna, malgutasuna eta konfiantza nagusi ziren giroa sortu genuen. Gaur, hamar urte geroago, esperimendu baten gisa hasi zen eta politika publikora iristea eta milaka gazteri laguntzea lortu zuen metodologia harekin, izugarri eskertzen dut prozesuak iraun zuen sei urteetan kide guztiek erakutsi zuten aparteko ahalegina eta konpromisoa.

Beste proiektu berritzaile batzuk ere badaude. Uruguain 2016an martxan jarri zituzten Sormen Industrietako [Berrikuntza Voucher-ak, adibidez](#). **Ekimen horren asmoa zen sormen-industrian ekintzailetzak lantzea**, ekonomiako beste sektore batzuekin loturak ezarriz, ezagutza- eta teknologia-hornitzaileekin loturak sortuz eta bezero potentzialak gehituz. **Halaber, Kolonbia aitzindari izan zen KSIak sustatzeko eragin handiko proiektuak martxan jartzen eta Ekonomia Laranjaen korrantea pizten. Horiek horrela, Bonu Laranja (2019)** sortu zuten, abiapuntuztat hartuta, batetik, kultura-ekintzaileen finantzaketarako sarbiderik eza; eta bestetik, ekintzaile horien kalteberatasuna, negozio-ereduari dagokionez.

Kolonbiako gobernua, Enpresen Garapenerako eta **Kanpo Merkataritzarako Bankuarekin (Bancóldex) elkarlanean, Latinoamerikako lehen Bonu Laranja jaulki zuen tokiko merkaturan**, 400 mila milioi pesokoa. Bonuen baliabideak kreditu-lerroen bidez bideratu zituzten, Kolonbiako hamar industrian jarduerak eta proiektuak finantzatzeko: *argitaletxeak, ikus-entzunezkoak, fonografia, diseinua, edukien softwarea, ikusizko arteak, publizitatea, albiste-agentziak eta bestelako informazio-zerbitzuak, arte eszenikoak eta ikuskizunak, eta turismoa eta kultura-ondare materiala eta immateriala. Era horretan, herrialdeko kultura- eta sorkuntza-sektorea indartu zuten.*

Horregatik guztiagatik, eta KSletan eta gizarte-berrikuntzan aritzen garen eta gure gizartean aldaketa positiboa sustatzen duten ekimen, proiektu, prozesu eta erakundeak garatzen jardutea erabaki dugun pertsona eta profesionalok sentitzen dugun grina baloratzeko eta elikatzen jarraitzeko helburuarekin, Eduardo Galeanoren hitz batzuekin agurtuko zaituztet. Galeanok aldaketarekin amesten jarraitzea animatzen gaitu, elkarrekin bidea egiten jarraituz gero baino ez baitira gertatzen aldaketak.

“Utopia zerumugan dago. Bi pauso egin ditut, eta utopia bi pauso urrundu da; zerumuga, berriz, hamar pauso. Orduan, zertarako balio du utopiak? Horretarako balio du, ibiltzeko”.

Multimedia edukia

Txosten hau irakurtzen bukatu eta CHANGE n landutakoa errepasatu ondoren, badirudi uste baino gutxiago hitz egin genuela diruaz; batez ere harremanez, konfiantzaz, elkarrekikotasunaz, pertsonaz... eta “gauzak egiteaz” hitz egin genuela.

Eta dirua, orduan, zer?

Zer da lehenago, arrautza ala txerria?



<https://www.flickr.com/photos/colaborabora/albums/72177720323339661/>



https://www.youtube.com/playlist?list=PLDWAgSuEV-l32AOI_aQNZg6ld9lrRuHJNH



change



Zenbait gauza
ezin dira
diruarekin
erosi.



#CHANGE_MdC
change.karraskan.org

